



ARGIA

Sexu-heziketaren faltan, pornografia irakasle

ERAKUNDE PUBLIKOEN ARDURAGABEKERIA AUZITAN

24-29. orrialdeak

2853 | 2023 / 12 / 31 | 4,00 €



***“Selekzioak ez dit
kompentsatzen
Espainiako bandera
eraman behar badut”***

14 | IOHANA AZKORBEITIA



***Venecia, Jazzberri,
Txitxarro...
Azterketa kulturala***

42 | DISKOTEKAK



LARRUN #291
Espoliazio frankista



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**.

Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Kaxa barruan aurkituko dituzu:

Karta handiak: Hizkia larriz eta xehez aurkezteko, animalia irudiari eta haren izenari lotuta.

Karta txikiak: Umeek manipulatu, erabiltzeko eta jolasen bidez hitzak osatzeko.

Laburpen-karta: Kontsultarako, animalia guztien irudiak, izenak, taldeak eta dagozkien hizkiak.

Posterra: Animalia guztien bilduma, dagozkien hizkiekin aldamenean.

Bideoak eta webgunea: Hizkien ahozotasuna lantzeko, karta bakoitzari lotutako ipuin, kanta, olerki, bertso, kontakizun, aho-korapilo, esamolde eta antzerakoen ikus-entzunezkoak webgunean eskuragarri.

Liburuxka eta jolasak: Materialaren argibideak emateaz gain, hainbat jolas proposatzen ditugu karta txikien bidez irakurketa eta idazketa lantzeko. Memoria, azkartasuna, arreta, irudimena, analisia, kooperazioa, hiztegia... garatzeko jolasak.

Egileak: Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzaguena.

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | NORA SALBOTX
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | IÑAKI BARCENA
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | KOLDO ALDALUR

Finkoak

- 36 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
MARINA LANDA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU


 AZALEKO ARGAZKIA: **HARDWERK / MONICA MUÑOZ** ©

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


OLIVIER DU GORNAY

12 | NET HURBIL:
KARGAONTZIAK BALIO HANDIAGOA DU PALESTINAREN BIZITZAK BAINO
 Israelekin harremanetan diren eta Itsaso Gorritik pasatu diren itsasontziak erasotzen dabilta Huthi Yemengo matxinatu xiiak. Helburua: Israelek Gazan egindako sarraskia geldiaraztea. Mundu mailara ari da eragina hedatzen, merkantziarako pasabide nagusietarikoa izanik. Jenofa Berhokoirigoinen artikulua.

Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | PERTSONAIA | OIHANA AZKORBEBEITIA

“Mendiari errespetua eduki behar zaio, eta hori galtzen dabil gaur egun”

Danele Sarriugarte

24 | GIZARTEA | NERABEAK ETA SEXU HEZIKETA

Pornoa ote da arazoa?

June Fernández

30 | NAZIOARTEA | MELVIN PICÓN

“Proiektuak geldiarazi ditugu, komunitateak zortzi urtez egon direlako erresistentzian”

Leire Artola

33 | HISTORIA | MARCUS REDIKER

“Esklabotzaren indarkeria funtsezkoa izan zen kapitalismoaren gorakadan”

Irene G. Rubio-Pablo Elorduy / El Salto

42 | KULTURA | DISKOTEKAK

Bidaia bat dantzaleku galduetan zehar

Iñigo Basaguren-Duarte

Irakurlearentzat oharra:
hurrengo astean ez da astekaririk izango

Urteko azken astekaria duzu hau. ARGIAko lantaldeak astebeteko oporraldia egingo du eta beraz, urtarrileko lehen astean ez du astekaririk kaleratuko. Jasoko duzun hurrengo zenbakiak urtarrilaren 14ko data eramango du.

Jabetza
 Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
 Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Mattin Azpiroz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
 Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria
 Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
 Antza S.A.L.

Administrazioa
 Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta
 Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
 Olatz Korta

Azoka
 Mikel Olabide

Idazkaritza
 Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
 Asier Iturralde

Informatika
 Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
 SS 837-2012

ISSN
 0213-909X

Batzorde parekidea
 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
 komertzial@argia.eus
 komunitatea@argia.eus

Telefonoa
 943371545

Gipuzkoa
 Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpreekin batera:

aniza
 KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
 SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
 SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA



Nor ala zer gara gu?

Ohiturak bizi gaitu bizitzaren ia esparru guztietan. Gure aurrekoek egindakoak nondik gatozen ikusteko balio du eta, aldian-aldian kritikoki aztertuz gero, etorkizun hobeaz lortzeko pistak eskaintzen dizkigu. Tradizioa baliogarria da, baina ez edozein prezioan, are gutxiago sufrimendua eta bizidunen 'kosifikazioa' oinarri hartuta. Gizakiaz besteko gainerako animaliak ez dira gure entretenimendurako jaio eta bizi. Gure burua eta gainerako guztiena atxilotzen duen animalia bakarra izaten jarraitzen dugu, eta mota honetako festa herrikoiek anomalia hori normalizatzen eta betiketozen laguntzen dute.

📍 Donostiako San Tomas eguneko "izar" nagusia, hesituta, erakusgai. **LINAS KORTA**

📌 **AXIER LOPEZ**



LOINTEKEKO SEXU ABUSUAK

Kluba eta mugimendu feminista, aurrez aurre

 MATTIN AZPIROZ PAGOLA

Zeresan handia ematen ari da Lointek Gernikako Mario López entrenatzailearen kasua. López egi diote entrenatzaile zen garaian jokalar nerabe bati sexu-abusuak egin izana, eta Gernika-Lumoko Sare Feministak seinatu du klubak kasuan izandako erantzukizuna. Mugimenduak kirol-taldearen “konplizitatea” salatu du, eta azpimarratu dute kluba udatik jakinaren gainean zegoen arren, ez duela neurrik hartu dena argitara atera den arte.

Klubak kasuaren berri zuela ukatzen jarraitzen du, eta iragarri du akusazio partikular gisa parte hartuko duela Mario Lópezen aurkako epaiketan. “Egoeraren larritasunaz jabetzen gara, gaizki egin genuela onartzen dugu eta barkamena eskatzen dugu, hau ezin izan dugulako behar bezala kudeatu”, adierazi du klubeko presidente Gerardo Candinak. Zuzendaritzako kide Gorka

Partida egunean, hainbat zalek bere haserrea agertu zuen harmailetatik, kirol-taldeak kasuan izan duen kudeaketa “txarra” salatu nahian

Etxebarriak azpimarratu du ez dutela gertatutakoa estali, “gauzak modurik onenean” egin ez dituzten arren. Klubak errepikatu du ez zuela salaketa horren berri, eta Lópezek helarazi ziena jazarpen-salaketa bat zela, ez sexu-abusuak egiteagatik salaketa.

Kirol-taldearen bertsioa ezeztatu du Sare Feministak: “Asko harritu gaitu

klubak komunikatu bat argitaratu izanak gertakarien berri ez zutela esanez. Esan nahi duzue ez zinetela gurekin bildu? Ez du zentzurik, gezurra da eta jakingo da”.

Kasuak hedabideetara jauzi egin osteko lehen partida Gernikan abenduaren 20an izan zuen taldeak. Maloste kiroldegian jokatu zuten Kangoeroes talde belgikarraren aurka. Partida hasi baino lehen, saskibaloit taldeko zuzendaritza eta jokalariek elkartu dira “Gehiagorik ez” leloa idatzita zuen pankarta batekin. Hainbat zalek bere haserrea agertu zuen harmailetatik karteletan zituzten hainbat mezuren bitartez, kirol-taldeak kasuan izan duen kudeaketa “txarra” salatzen.

JOKALARI BATEK HITZ EGIN DU

Gernikako Lointek saskibaloit taldea inguratu duen zurrunbiloaren erdian, kasua publiko egin eta astebetera hitz egin du gaiaren inguruan taldeko jokalar batek, Angie Bjorklundek. Bjorklund pasa den urrira arte Lointek Gernikako jokalar zen, eta taldea uzteko zituen arrazoiak argitaratu ditu bere Instagram kontuaren bidez emandako adierazpenetan.

Lointekeko jokalar ohiak argi adierazi du klubarekin bildu zela hainbat bilera egiteko eta bere kezka adierazteko. Bjorklundek azpimarratu du helarazi zela arduradunei lan-giroan ez zela “gustura eta seguru” sentitzen: “Hori adieraztea ez al zen nahikoa izan?”. Halaber, nabarmendu du gogor borrokatu zela klubeko zuzendaritzarekin, Mario López bere postutik kendu zezaten: “Berak geratzeko eskubidea zuela esaten zidaten”. Bjorklundek salatu du kirol-taldeak esan zuela sexu-abusuen salaketa “gezurra” zela, eta denek “isilpean” gorde behar zutela. ●



Gernika KESBeko entrenatzaile Mario López.

MATERIALISMO HISTERIKOA

Onena, familiarekin elkartzeara



UXUE APAOLAZA LARREA

Irtsi dira, eta daton gozokizko lehen iragarlea ikusi orduko hasi gara marmarka. Bai, urtero berdin, eta urtero gai bera auskalo zein ikuspegitatik. Kontua da urtero gertatzen dela, hutsik egin gabe; urtero, Jesus jaio egiten da. Eta, gogaitzen duena da, dirudie-nez, behingoagatik opariak egin beharra, edo kalean argiak jartzea, haurrak baserritarrez jantzi beharra. Ni, ordea, askoz gehiago gogaitzen naute “festa hauen onena familiarekin elkartzeara da” jatorkatoliko guztiak. Niri hori iruditzen zait festa hauen zitalena. Hasten da aulki jokoa, denek nahi dute bat, harreman oso martzianoak elikatzen dira betirako bat izateko bermearen truke. Zenbat erruki onarpen batzuetan. Zenbat erregu isiltasun batzuetan. Eta familia duenak hasperen egingo du gauaren momenturen batean, “momentuz, gutxienez, ez nago...”. Festa itxiak dira, bakoitzak bere zoriontasun intimoa (ez)erakusteko datak, horrela behar ez izateko ez kaleko argi, ez kabalgatako goxoki, ez kaleko zer. Familia baldin badaukazu.


Eta batzuk ulertu ezinik egongo zarete. Zer kasketa da hori. Bakarrik bazaude, baliteke, zeure ardura izatea. Alegia, zoriontsua ez bazara, agian, zeure ardura da. Nire kasuan, ziur. Baina zoriontsuek ulertzen ez duzuen mundu bat dago hemen behean. Merendoletara gonbidatu ez dituzten asko (eta ez beren erruz, batzuetan bakar horrek du arrazoa, ez beste guztiak), joan ezin dutenak, egin ezin dituztenak... Ba merendola guztiak aldi berean konbokatzen dira. Ez duzu zuri zegokizun, eta ez duzun merendola bakarrik ikusten, beste guztiak ere ikusi behar dituzu. Exhibizio obszenu xamarra da. Eta galdera ez da merendolak gustatzen zaizkizun edo ez. Ez-gustatze batzuek prebentzio kanpainak dirudite gainera. Kontua da urtero galdetu behar diozula zeure buruari ea urte horretan, oraindik, baten batean aulkia gordeko lizuketen. Zu ez egoteak norbaiten merendola edozein ez-merendola baino tristeago bilakatzen duen. Ez dakit, urteren batean egin dezakegu alderantziz: ezkuta daitezela afari/bazkariak konpainian pasako dituztenak, antola dezatela iskanbila ezkutuan (ziur, askok, gehiago gozatuko lukeela, batzuek merendolak lortu ere bai ezkutukoak balira...). Antzez dezagun egun horietan denok bakarrik gaudela. Data horietan bakarrik.

Baina, ei, momentuz, gutxienez, txin-txin, jendez inguratuta, edo ondoan inor gabe, bakarrik egongo garenon alde (baina, hala ere, ni, momentuz, gutxienez, ez nago...). ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Hezkuntza

Eusko Legebiltzarrean, abenduaren 21ean onartu da soilik EAJ eta PSEk babesten duten Hezkuntza Legea. Oposizio guztiak kontra bozkatu du. Legebiltzar atarian, Euskal Eskola Publikoaz Harrok eta Euskal Herrian Euskarazek protestak egin dituzte.

Langile borroka

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, sektore publikoko 150.000 langile deitu zituzten grebara abenduaren 19an. Aurrekontuei begira, zerbitzu publikoak, soldatak eta enplegua hemen adosteko eskatu dute ELA, LAB, CCOO, Steillas, SATSE eta ESK-k.

Palestina

Palestinaren alde egiteko plataforma berria aurkeztu dute Iruñean: “Yala Nafarroa Palestinarekin”. Hainbat eragile barnebiltzen ditu eta manifestazioa deitu dute abenduaren 30erako, “Geldi dezagun Palestinan egiten ari diren genozidioa” goiburupean.

Baserriak




ULA IRURETAGOIENA

Berriki Donostiako Arkitektura Eskolan agerkunde arkitektoniko bat izan dugu. Tesi doktoral baten markoan eta Ibon Telleria arkitektoaren eskutik, euskal baserriaren inguruko ezagutzaren aldaera bat azaldu da. Ekarpinak dio, lagar ereduaren baserrien hasierako eraikuntza 1450 urte inguruan kokatu ahal dela, orain arte XVI. mendean datatuak izan direnean. Baserriak garai hartako sagardo ekoizpenaren fabrikak ziren eta euskal lurraldea sagardo ekoizpen makina gisa funtzionatzen zuen, baserria makinaren unitatea izanik. Baserria ezin da inguruan zituen landa lurretatik desberdindu, bata ez da ezer bestea gabe. Eta baserria eta bere inguru gertuak paisaia-entitate bilakatu ziren.

Sorterriko baserriak egurrezko egiturak ziren, inguruko zuhaitzekin eginak. Ezabatu dezagun harria gure euskal arketipo arkitektonikotik. Sei baok egitura osatzen zuten eta oinean modulazio eta proportzio zehatz bat jarraitzen zuten denek, sagarrak txikitzeko egitura-lagarria erdialdean eta lehen oineko plataforman zegoen, kasuan kasuko baldintzetara egokitzekoa. Lagarra urrutiko herrialdeetan ere egiten zen sistema bat da, eraikinaren kanpoaldean zeuden; eta baserriaren egitura Europako egur eraikuntzaren ezagutzan kokatzekoa da. Ezabatu dezagun gure nolokotasun isolatua gure mitoetatik.

Gurera iritsi diren baserriak *patchwork* bat bezala irudikatu behar ditugu. Eraiki zirenetik gaur egun arte aldaketa anitz jasan dituzte, ez soilik barne banaketan; egituran, eraikuntzan eta kanpoaldeko akaberetan ere bai. Hainbeste informazio gordetzen dute bere materialen, hainbeste egoera bizi izan ditu, ikusgai diren geruza gainazal guztiak bereiztea eta ulertzea ez dela nolana hiko lana. Ibon Telleriak dio baserria entzuten ikasi behar dela. Edonola ere, beharrezkoa da baserria irudi estatiko batetatik fotogramaren baten ulermenera salto egitea. Bide honetatik bakarrik irekiko dugu baserriaren iruditeria, bere edertasuna zabaldu eta zinez maitatzeko bideak eraiki. ●



Oposizioak gaztelaniaz, gero euskaraz irakasteko

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

EAeko ikastetxe publikoetan irakasle plaza lortzeko oposizioetan, euskaraz irakatsiko duten hautagai batzuek lanaren defentsa gaztelaniaz egitea aukeratu dute, oposizioen oinarriek hala ahalbidetzen baitute. Horretaz kexatu da tribunaletan egokitu zaion aztertzaile bat.

Batetik, zentzurik ba al du euskaraz irakatsiko duen irakasleak aukera izatea oposizioetako proba euskara ez den beste hizkuntza batean egitekoa? Proba ez al litzateke hain justu baliatu behar irakasleen euskara maila, kalitatea, ahozkotasuna eta gisakoak neurtzeko, besteak beste? Euskaraz edo gaztelaniaz aurkezturiko lana berdin baloratzea egokia al da?

Bestetik, zentzurik al du euskaraz irakatsiko duen irakasleak gaztelania hautatzea lanaren defentsa egiteko? Zein profil, maila eta ohitura linguistikotik ote du hori egiten duen irakasleak? Ulertu behar al dugu joera handiagoa duela erdarara jotzeko, euskarara baino? Hobeto moldatzen dela erdaraz, euskaraz baino? Etxetik presatuta dakarren lanaren defentsa euskaraz txukun aurkezteak ahalegina eskatzen diola eta ahalegin hori egitea baino nahiago izan duela erdarara jo? Klaseko martxa ere erdaraz pentsatu eta prestatuko duela, eta ondoren euskarara itzuliko duela?

Hizkuntza ereduak eta ikasleen euskalduntzea eztabaida iturri izan dira EAEko Hezkuntza Lege berrian, baina oharkabean joan da irakasleei dagokien atala: irakasleek euskaraz C1 maila lor dezaten prestakuntza "sustatuko da", dio legeak, baina C1 ez, C2 maila sustatzeko eskatzen zuten Euskalgintzaren Kontseiluak. Alegia, irakasleek behar luketen euskara mailaren helburua kokka bat igotzea.

Irakasleak eurak kritiko agertu izan dira, maisu-maistrek beti ez dutelako bermatzen euskara maila egokia, edota erdarara jotzeko joera dutelako. Eta euskara pobrea duenak edota euskara lehenesten ez duenak nekez transmitituko die kontraktorik bere ikasleei. ARGIA gaiaz idatzi genuenean, irakasleak euskalduntzeko ardura duen Irale programa oso zaharkituta dagoela eta ez dela funtzionala adierazi zuten irakasle batek, iruzkinetan.

Beste irakasle batek erantzun zion arazoa ez dela Irale, "harmaila baxuenetik" datorrela arazoa: "Geure buruari galdetu beharko genioke zein hizkuntza maila ateratzen duten gure irakasle eta maisu-maistrek unibertsitatean iritertzen direnean. Gaztelaniaz pentsatu eta euskaraz eskolak ematen dituzten irakasleek beteta dago gure irakaskuntza-sistema. Ergatiboak, konpletibak bereizten ez dituzten eta morfosintaxi-akats izugarriak egiten dituzten irakasleak ditugu nonahi. Denak ez du balio aritze hutsaren izenean".

Baina aritu ere, denak ez dira euskaraz aritzen, egunerokoan. Hala nabarmendu nahi izan zuten Ibai Zabalak, "irakasle askok euskararekiko agertzen duen atxikimendu falta" mahai gainean jarrita. Errealitatea zein den ikerketa sakonagoek erakutsiko dute, baina oposizioetan batzuek hautatu duten bideak zer pentsatua eta zer aztertua eman beharko luke. ●

15

hildako eta 24 zauritu utzi ditu Pragako Filosofiako Unibertsitatean izandako tiroketa batek. Hildakoen artean dago 24 urteko erasotzailea (tiroketaren ondoren gizonak tiro batez hil zuen bere burua).

17

epaile baino ez dira gai epaketak euskaraz egiteko, EAEn dauden 284 epaileetatik. "Arazo handi" baten aurrean gaudela adierazi du Jaime Tapiak.

32.449

pertsona daude mediku espezializatuen kontsultaren zain Gipuzkoan, 2023 bukaeran. Itxaron zerrendaren gorakadaren ondorioz, klinika pribatuetara 1.282 pertsona bideratu dituzte 2022an, eta 2.4 milioi euroko gastua izan da.

"Epai hauek premisa faltsua dute: lan eskubideak eta hizkuntza-eskubideak elkarren kontrakoak direla"

EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

EAEko Auzitegi Nazionalaren epai batek dio Laudioko Udaleko funtzionarioa salbuetsita dagoela euskara maila egiaztatetik.

2023-12-21



"EZINEZKOA DA BESKOITZETIK IKASTOLA BAT HORRELA KANPORATZEA"

PEIO JORAJURIA

Seaskako lehendakaria. Beskoitzeko auzapezak erabaki du herriko etxeak ikastolarekin zuen hitzarmena bertan behera uztea, alegia ikastolari ez ematea baimenik lur horiek erabiltzeko aurrerantzean.

EUSKAL IRRATIAK (2023-12-19)

"Haurren heriotzaren aurrean naturaltasunez eta humanitatez jardutea posible da"

GEHIAGO GARA EKIMENA

Haurren heriotza, eta heriotza haurrekin, naturaltasunez eta humanitatez bizi iwzatea eta inguru gehienetan ematen den isiltasuna eta ezintasuna bistaratzeko eta eraldatzeko "du helburu ekimen sortu berriak.

2023-12-16



Gaiaren adimena



DIANA FRANCO

Bada teoria bat James Lovelock-ek planteaturikoa eta Lyn Margulis biologoak sustaturikoa: Gaiaren teoria. Teoria horrek dio bizitzak, bere forma anitzetan, pixkanaka-pixkanaka Lur planetaren baldintzak bizitzarako egokitu dituela: hala nola temperatura, oxigeno maila eta azidotasuna. Biotak (Lurreko bizitza multzoak) biosfera (bizitzarako egokia den eremua) bizitzarako berez erregulatzen den harreman sistema bilakatu du.

Adimen artifizialaz hitz egiten dugunean, askotan ohartu gabe honek sortzeko duen gaitasunaz ari gara. Aurretik dituen datuekin gauza berriak sortzeko gaitasunaz. Hainbatek harremana ikusten du Gaiaren hipotesiaren eta adimen artifizial sortzailearen artean. Izan ere, bi kasuetan, sistema batean ematen diren harremanek eta informazioak eraldaketa bat eragiten dute. Adimen artifizial sortzailearen kasuan, datu-multzo handietatik abiatuta eta sare neuronalen bidez, datu horiek harremantzeko gaitasunagatik eduki berriak sortzeko aukera ematen da. Aldiz, Gaiaren teorian, sortu baino, orekatu egiten da, bitzarako materiaren baldintzak orekatu. Eta orekatzeko horretan, ongizate horretan, bizitzak jarraitu dezake.

Adimena zer ote den pentsatzeko garaian gaude. Gure gizarteek eta hezkuntza sistemek adimen artifizial sortzaile baten antzera funtzionatzeko entrenatzen gaituztela iruditzen zait, Gaiaren adimenari, gure gorputzen adimenari, bizitzaren adimenari kasu handirik egin gabe; bizitzarako ongizatea zaintzea ahazten dugu, etengabeko sorkuntza baten bidean. ●



Le Penen ametsa, Macronen gauzapena

✚ JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Garaipen ideologikotzat" jo du eskuin muturreko RN alderdiko Marine Le Penek abenduaren 19an bozkaturiko Immigrazio Legea. Hein horretako testu bat ametsetan bai, baina errealitatean ez zuen irudikatzen. Le Penek berak errana da: "Hein horretako testurik ez nuen espero". Hain zuzen, herritarrak jatorriaren arabera mailakatzen dituen testu xenofobo bat pasa du Emmanuel Macronek, eskuinaren eta eskuin muturraren babesari esker -349 alde, 186 kontra eta 38 abstentzio-.

Harturiko neurrien artean dugu erregularizaturiko etorkintzako laguntza sozialen ukapena -bost urtez bizi beharko dira Frantzian etxebizitzarako, haurren zaintzarentzat edota osasunerako laguntzarik jaso gabe (bi urte eta erdi, lanean baldin badabil)-; jatorriz etorkinak direnen sabeletik sorturikoek herritartasuna ez dute orain arte bezala automatikoa eta 16 eta 18 urteen artean galdetu beharko diote administrazioari; etorkinen etorrera mugatzeko kuotak jarriko ditu Parlamentuak; papergabeen kanporaketak erraztuko eta beraz biderkatuko ditu; etorkinaren familia bertaratzeko baldintzak bortizki gogortu dituzte -18 hilabetetik 24 hilabetera pasa da eskaera aitzin Frantzian pasa beharreko epea; baliabide finantziarioak "egonkorak, erregularrak eta nahikoak" ukan beharko ditu eskatzaileak, osasun aseguru beharko du eta bikoteak 21 urte baino gehiago ukan beharko ditu-.

Bistan da, horrek ez du Frantziako Gobernuak nahiko lukeen bezala etor-

kinen etorrera mugatuko, Frantziako legediaren eragina ttipi gelditzen delako norberaren errealitate geopolitiko edo ekonomiko jasangaitzaren ondoan. Etorriko dira eta harrera bortitza jasoko dute: kanporatua izateko aukera handiak, erregularizazioa lortzeko bide are dorpeagoa -ez errateko ezinezkoa-, eta eskuratuz gero, bigarren herritar gisa kontsideratuko ditu Frantziak.

1980ko hamarkadaz geroztik, immigrazioari buruzko hogeita lege baino gehiago bozkatu izan ditu Frantziako Parlamentuak. Ezkerra ala eskuina bosterean, aldeak egon dira bata eta bestearen artean, baina azken urteetan gogortu egin da tonua. Aldi honetan, ozka bat gorago egin du Macronek: nazio lehenetsunaren gauzapena eta eskubideen berdintasun unibertsalaren ukapena legezatu ditu. Sinpleki azaltzeko, 2023ko abenduaren 19az geroztik eskubideak ez daude guztientzat, herritartasuna edota erregularizazioa ukatea ez delako nahikoa eta norberaren jatorriak eragiten duelako.

Lurrikara eragin omen du bozketak Frantziako Gobernuan. Ez da egia. Macronek arras ongi zekien zertan zebilen. Bozketa asumitu ere du, ez omen dago ezer "ahalkegarrik" Immigrazio Legean. Legeak Konstituzioaren aurkako neurri batzuk dituela zioen Barne ministroak bozketa aitzin, baina ez zitzaion trabagarri. Badakite eta ez dute arazorik ikusten horretan. Eskuin muturrarekin eskuz esku ibiltze hori asumitzen bazuen Macronek, nonbait ofizializatu egin du Immigrazio Legearekin. ●

Carrero Blanco, frankista eta esklabista baten profila hiru koplatan

 URKO APAOLAZA AVILA

50 urte bete dira ETAK Madrilen Luis Carrero Blanco hil zuela, 1973ko abenduaren 20 hartan lehergailu batekin bere autoa airetik bidalita. Hilketa horrekin ETAK frankismoa herren utzi zuela esan ohi da, Carrero Blanco Francisco Franco diktadorearen oinordeko "naturala" izango zela garbi zegoelako, eta ondorioz, atentatuak erregimenaren erorketa azeleratu zuela diote historialari gehienek.

Horrek, eta Eva Forestek hain ederki kontatu zigun *Txikia* komandoren *Ogro* operazioaren ikusgarritasunak, seguruenik itzalean utzi dute militarren biografia ilunari buruz dakiguna, eta bere izaera eta perfilari buruzko analisiak deskuidaturik geratu izan dira sarritan. Baina eskuindar sektoreek familia ugari baten aita erlijioso, fakzio politikorik gabeko pertsona koherente eta bizitza umileko gizon bezala marrazten diguten arren, Carrero Blancok benetan nola pentsatzen zuen jakin dezakegu hiru koplak eskasetan. Eta zertaz libratu ginen esanez aitaren egin ere bai...

Carrero Blanco Santoñan jaio zen 1904an eta karrera militarra egin ondoren, behin Almirante kargua hartuta, bete betean hartu zuen parte 1936ko Gerran kolpisten aldean. Bere agindupean izan zituen altxatuen unitate ugari, tartean *Canarias* gurutzatzailearena, eta azkeneko Armadako buru izatera ere iritsi zen. Gogora dezagun XX. mendeko gerra zitalenentzako faxisten lehen esperimendu-zelaia izan zela hura: bonbardaketak, estermio-gu-neak, esklabo-batailoak, genozidioa...

Militar espiniarraren biografien artean, agian Javier Tusell historialari eta politikariak aspaldi idatzitakoa da eza-gunena, baina badaude beste batzuk, azkenekoa José Antonio Castellanosen eskutik: *Carrero Blanco. Historia y memoria* (Catarata, 2023). Bertan nabarmentzen du Carrero estrategia bat izan zela, eta seguruenik bere erabakien bidez ahalbidetu zuela Francok hainbeste urtez agintzea: "Ez zen soilik pertsona bat zeinetan Francok konfiantza handia jarri zuen; horrez gain, bere ideia, pen-



tsamendu eta jarraibide estrategikoen-gandik eragiten utzi zen diktadorea", dio egileak elkarrizketa batean.

Ultrakatoliko, erreakzionario eta kontserbadore zurruna, "bere erlijio-tasuna XIX. mendekoa zen XX. mendekoa baino", dio Castellanosek. Falangearen eta erregimen barruko beste sektore politikoen arteko liskarretatik kanpo geratu zen, nahiz eta Opus Deiren oso gertukoa zen Carrero Blanco. Baina batez ere frankista zen, askoren ustez, Franco bera baino frankistagoa.

CARRERO BLANCOREN SOLDATA ESKLABOEN ORDAINTZEN ZUTEN

Eta frankista hitza ez da doakoa hemen. Bere bizitzan frankismoaren ikuspegi faxista, inperialista eta krudelenarekin bat egin zuela adierazten dute hainbat kontuk. Aipatu ditzakegu Espainiak Ekuatore Gineako eta Mendebaldeko Saharako kolonietan egin zituen zitalkeriak -Carrero baitzen kolonia horien ordezkari nagusia-. Baina beste adibide bat ematearren, gerraostean Espainia "berreraikitze" erabili ziren milaka preso esklaboren inguruan hitz egin dezakegu.

Esklabotza horrekin aberastu ziren zientoka enpresa -asko euskal jatorrikoak-, baina baita erregimeneko koadroak ere. Soilik 1939 eta 1945 urteren artean 110.000 preso erabili zituzten horrela, eta gaur egungo 780 milioi euro irabazi zituztela kalkulatu da, haien izerdi eta odolez. Hori guztia kudeatzeko Lanaren Bidez Zigorretatik Libratzeko Patronatua sortu zuten. Teorian, preso bakoitzari 14 pezeta ordaintzen zizkion enpresak, baina horietatik 0,50 zentimo besterik ez zituzten jasotzen, gainerakoa bidean "galtzen" zen.

Zati handiena aipatu patronatu horren esku geratzen zen, Espainiako Bankuan zeukan zifratu-rikiko kontu batean. Eta Antonio Miguel Bernal zendu berri den historialari andaluziar eza-gunak gogorarazi zuen moduan, zein zen kontu horren titularra? Eta hortaz, zeinek jasotzen zuen bere soldata zuen zuenean esklabo errepublikarrak esplotatzen? Luis Carrero Blancok.

50 urte dira sistema errepresibo diktatorial baten figura klabea hil zuela ETak, biktima ez baizik biktimario bat, oren gainetik. ●

20.000 PALESTINARREN BIZITZEK BAINO BALIO GEHIAGO DAUKA KARGAONTZI BATEK...

Huthi Yemengo matxinatu xiiek arras ongi dakite min egiten duen arma bat dutela esku artean: Israelekin harremanetan diren eta Itsaso Gorritik pasatako itsasontziak erasotzen ditu. Helburua, Israelen Gazan bideratu sarraskia geldiaraztea. Alta, mundu osoan daukate eragina, hain zuzen, kontainer-ontzien %30 inguru Itsaso Gorritik iragaiten delako, hots, nazioarteko komertzioaren %12. Egoera ezin jasanik, itsas-koalizio militar baten osaketaren berri eman dute AEBek. Ikusteke dago zer nolako bilakaera izanen duen berez kilometro bakar batzuetan kokaturiko baina eragina mundu mailakoa duen gatazkak.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Mundu mailako kontainer-ontzien %30 inguru Itsaso Gorritik iragaiten da, hots, nazioarteko komertzioaren %12. Pasabide nagusienetakoa da Itsaso Gorria, Europa zein AEBak helmuga ala abiapuntu dituzten merkantziak bertatik pasa ohi direlako Asiarekilako edota Ekialde Hurbilarekilako tratuentzat. Urtero 20.000 kargaontzi dira hortik pasatzen, 55 bat egunero.

2021eko martxoan, Itsaso Gorrirako heldulekua den Suezko kanalean hondoraturiko *Ever Given* kargaontziak ondorioztaturiko mundu mailako blokeoak balio digu irudikatzen zuten zenbaki horiek gordetzen duten errealitatea: itsasbidea sei egunez mozturik, beste 367 ontzi zituen bere gibelean, blokeaturik, beha, mundu mailako komertzioa geldian utzirik eta egunero 10.000 milioi dolarreko galera eraginez mundu mailako komertzioari. Ez dira ontzi ttipiak: *Ever Givenek*, adibidez, 400 metro luze eta 59 metroko zabalera du, 224.000 tonako edukierarekin. Hots, urtero 1.200 milioi tona merkantzia. 2018ko datuen arabera, egunero 6 eta 8 milioi petrolio upel artean dira Bab-el-Manded itsasartetik garraiatzen -3 milioi Asiako merkatura eta 3,5 milioi AEBetakora eta Europakora-.

Gunea estrategikoa dela jakitun, bertatik eragiten dabilta Huthiak, Yemengo matxinatu xiiak, Palestinaren aurka Israelen egindako sarraskia geldiarazteko xedez. Abisua emana dute: Israelera doan ontzi orori eraso egingo diote. Baina,

printzipioz, bakarrik horiek: "Israelera izan ezik, munduko beste portuetara doazen ontziak segurtasunean dira". Drone eta misil bidezko erasoak errepikatuz tentsioa gora zihoala, azaroaren 19an tinkotu zen giroa, negozio gizon israeldar baten *Galaxy Leader* izeneko ontzia hartu eta desbideraturik. Berez, Israel erasotzeko gaitasun militar ahulak baldin badituzte ere, nazioarteko merkataritzan ondorioztaturiko mehatxua dute armarik eraginkorra.

ARMARIK ERAGINKORRENA: DIRU-MOLTSAN ERAGITEA

Mehatxua benetakoa denaren froga da itsas-komertzioa talde nagusiek itsasbide hori utzi izana: CMA CGM multinazional frantsesak, Dinamarkako Maersk-ek, Hapag-Lloyd alemanarrak, MSC italiar-suitzarrak, Taiwaneko Evergreen, Koreako HMM... Ondokoa irakurri dezakegu Evergreenek bere bezeroei bidalitako agirian: "Israelera doazen edo Israeletik datozen merkantzien garraioa geldituko dugu aldi baterako, segurtasun ikuspuntu batetik arriskua emendatuz doalako". Petrolio-konpainia batzuek ere erabaki bera hartu dute, BP multinazionalak, besteak beste. Kontainerrak mozkinaz beterik, batzuk aingura aurtikirik dute, Bab-el-Manded itsasarte trabeskatzen beldurrez. Hots, badirudi boikot kanpaina on batek baino eragin gehiago duela Huthien ekimenak. "Ez gara *Ever Given* kasuaren errepikapenaren aurrean egon-

go, baina luzatzen bada, okerragoa izan daiteke oraingo hau" dio Mikel Aramendi kazetariak, ARGIA idatzitako "Sarraskiaren uhinak" artikuluan.

Hori horrela, erantzutea erabaki du Mendebaldeak, Israelen sustengua berresteko gisan eta ezinbesteko duen komertzioa bermatzeko. *Prosperity Guardian* ("Onuraren Zaintzailea") operazioaren berri eman du AEBetako Defentsarako idazkari Lloyd Austinek abenduaren 19an. Huthien erasoei eraso bidez erantzuten duen koalizio militarra da *Prosperity Guardian* eta AEBak, Erresuma-Batua, Bahrain, Kanada, Frantziako Estatuak, Italia, Herbehereak, Norvegia, Seychelleak eta Espainiako Estatuak ditu kide -azken honek zehaztu du Europar Batasunaren edo NATOren erabakiaren beha egonen dela operazioan aktiboki parte hartzeko-. "Nabigazio-askatasunaren" alde ariko dira borrokan. "Amerikak mundu osoa mobilizatzen balu ere ez genituzke gure eraso militarrek geldituko, egin beharreko sakrifizioak edozein izanik ere ez ditugu geldituko", izan da Huthien arduradunetarikoa Mohammed al-Bukhaitiren erantzuna. Argi utzi nahi izan du erasoz gero, Israelen gain AEBen kargaontziak ere izanen dituztela jomugatzat.

Bitartean, aitzina egin ahal izateko geroz eta kargaontzi gehiago dira Afrika peko Esperantza Oneko lurmuturretik iragaiten. Bistan da, horrek gastu bat dakar, bai ekonomikoa baita denborarena



OLIVIER DJGORNAY

MERKANTZIA JOMUGAN

Israelekin harremanetan diren itsasontziak dituzte jomugan Huthiek, baina azkenean nazioarteko beste ontziak ere dira mehatxatuak sentitzen. Itsaso Gorria zeharkatzeari utzi diote, oraingoz.

ere. Demagun, Rotterdam eta Singapur lotzeko %40 emedatzen da bidaia, 8.400 miliatik (15.550 km) 11.720 miliara (21.700 km) luzatuz bidea. Beraz, gas-tuak igo eta bertatik dabilta azken egu-netan kargaontziak.

MUNDU MAILAKO GUNERIK MILITARIZATUENA


Mohammed al-Bukhaitiren arabera, *Prosperity Guardian* operazioaren bidez, Itsaso Gorria militarizatu nahian dabilta AEBak eta hori Israelen babeserako. Azken operazio hori gabe ere, munduko eskualderik militarizatuena dugu Suezko kanalaren eta Bab-el-Manded itsasartearen arteko eremua. Mundu mailako estatu aberatsenek bertan dute beren armada, hala nola, Frantziako Estatuak 1.300 soldadu dauzka Djibutin,

AEBek ere bertan dute Afrikan duten base militar bakarra, Italia, Erresuma Batua, Espainiako Estatuak, Saudi Arabia, Alemania eta Japonia ere presente dira, eta azkenik, 2017an Txinak erabaki zuen militariki kokatzea Djibutin. Itsaso Gorrian 372 kilometro kosta dituen estatu ttipi horretan egotea ezinbestekotzat daukate estatu handi horiek, hain justu Itsaso Gorriarengatik: "Pasabide erabakigarria dago bertan, eta merkantzia trukeetatik etekinak ateratzen dituzten herriek ezinbestekotzat dute sARBIDE HORREN SEGURTASUNA", *L'apostrophe* komunikabideko *Djibouti: là où convergent les puissances militaires* (Djibuti: indar militarrek batzen diren lekua) erreportajearen irakurri dezakegunez.

Presentzia militar horren trukean dirutza jasotzen du herritarren hiru

laurdenak egunean hiru dolar baino guttiagorekin dauzkan Djibutik: urtean 30 milioi dolar Frantziaren partetik, AEBek 56 milioi, Japoniak 3 milioi, Txinak 17 milioi, Italiak 22 milioi...

Eta Itsaso Gorrira zabaltzen balitz Israelen eta Palestinaren arteko gerra? Urriaren 7az geroztik behin baino gehiagotan entzundako "gerraren zabalpenaren" arriskua gora doa, baina (oraingoz) ez hasiera batean pentsatzen zen bezala Hezbollahen baseetatik. Ikusirik zer nolako garrantzia duen Itsaso Gorriak bakoitzaren ekonomian, argi da luze baino lehen Mendebaldeak erantzunen diela Huthien erasoei. Azkenean, Mendebaldetik ikusirik, palestinar baten bizitzak baino gehiago balio duelako kargaontzi batek.●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Oihana Azkorbebeitia

ARINEKETAN ASKE



MENDIARI ERRESPETUA EDUKI BEHAR ZAIO, ETA HORI GALTZEN DABIL GAUR EGUN



2006an, mendi-lasterketen mundua artean berri-berria zela, “apur bat kasualitatez” hasi zen kirol horretan Oihana Azkorbebeitia, eta gaur egun ere arineketan segitzen du. Bide horretan, palmares ikusgarria bildu du, baina berak argi dauka zer ematen dion mendiak: “Askatasuna, haizea, eta poztasuna”.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Elkarrizketa honetara etorri aurretik fisioterapeutarenera joan zara.

Ohitura duzu?

Ez naiz batere errutinak jarraitzekoa, batez ere fisioterapia-kontuetan eta, baina ahalegintzen naiz noizean behin joaten. Gaur behar nuen. Lagun bat daukat Ozaetan, fisioa da, baina horretaz aparte orratzak-eta sartzen ditu, eta horregatik joan naiz apropos, gerria oso kargatuta eduki dut eta. Baina ez naiz oso errutina zalea. Entrenamenduetan ere, ahalegintzen naiz errutina bat edukitzen, baina nire egunerokotasunak ez du laguntzen. Arratsalde beharra egiten dut, beste enbaxada askotan sartuta nago, eta inprobisazio-maila handia dago nire bizimoduan.

Urkiolan jarri diguzu hitzordua. Leku berezia da zuretzat, ezta?

Leku berezia da hemen hazi naizelako, gure aita zena hemengoa zen, Txabolakoa. Aparkatu dugun lekutik bide bat hartuta, orain behatoki bat dago, interpretazio-zentro bat, eta beste etxe bat ere badago, Bizkaiko Diputazioak dauka hartuta umeentzako gauzak egiteko, baina hori lehen zen Txabolakoa, baserri zahar bat, eta gure aita hor jaiotakoa da. Gaur egun aita dago hor lurperatuta, pagoa jarri genuen han.

Txikitatik hemen bizi izan naiz, kaxotx artean. Udan karabana jar zitekeen, eta hor etortzen ginen aitaren aldeko bederatz lehengusuak, gurasoekin, uda pasatzera, eta asteburutan ere etortzen ginen. Gero aita behera jaitsi zen bizitzera, Mendiola auzora, eta handik hona oinezan etortzen da. Leku hau berezia da zentzu guztietan.

Beraz, txikitatik izan duzu mendiarekiko lotura eta zaletasuna, baina noiz hasi zinen mendi-lasterketen munduan?

18 urtera arte atletismoan ibili nintzen, gero Zaragozara joan nintzen ikasketak egitera, albaitaria naizelako, eta utzi egin nuen. Gainera amaitu nuen atletismoarekin apur bat gogaituta. Diziplina handia zen, eta 18 urterekin beste zerbait nahi duzu. Orduan joan nintzen Zaragozara eta utzi nuen arineketa, baina mendia... Beti esan dut ni mendizalea naizela, eta Zaragozatik hamabostean behin etortzen nintzen etxera, mendira joateko, txakurrekin ibiltzeko. Ikasketak bukatu nituenean, 2005-2006 inguruan, oraindik mendi-lasterketak ziren gauza berri-berri bat, eta egiten zen lasterketa bat Izarraitzen. Nire koinatua bertakoa



Oihana Azkorbebeitia

ABADIÑO, 1981



Mendi-korrikalaria da, eta al baitaria lanbidez. Kulturaren munduarekin ere badu loturarik: besteak beste, Gerediaga elkarteko kidea da, eta zutabeak idatzi ditu *Anboto* aste-karian. Korrikalari gisa, Euskal Selekzioan eta Merrell taldean parte hartu du, baina 2024tik aurrera Euskalmushing taldean ibiliko da –talde sortu berria–. 2018an *Mendiaren altzoan* liburua argitaratu zuen: irakurketa aproposa haren ibilbidea eta bizipenak ezagutzeko.



da, Azpeitiakoa, eta elkarrekin egitea proposatu zidan. Eta nire lehenengo lasterketa hori izan zen. Anbulantzia amaitu nuen [barreak].

Zer gertatu zitzaizun?

Gaur egun badakigu mendi-lasterketak zer diren, baina, orduan, hasi arinetan eta gora: ez jan ez ezer. 21 kilometro ziren. Flakiak eman zidan. Heldu nintzen, baina anbulantziara zuzenean. Hala eta guztiz, gustatu zitzaidan asuntza, eta Euskal Selekzioetik deitu zidaten, Rosa [Lasagabaster] eta Asier [Lasa] egon ziren selekzionatzaile, eta ea animatuko nintzen, ez zegoela neskarik. 2007an hasi nintzen selekzioan; gaur egun laguna dudana Arkaitz Zamakona, Otxandiakoa, bere bitartez ere sartu nintzen mundu horretan. Eta gaur egun arte.

Atletismoarekin alderatuta, zerk erakarri zintuen?

Mendizalea izatera, mendian arinetan ibiltzeak engantxatu ninduen, giro sano horrek; atletismoan ez zegoen halakorik, atletismoa oso konpetitiboa da, gaur egun askoz gehiago, baina gure sasoiaren ere bai: beti erlojuari begira, markak, konpetizioa, astebururo aritu beharra... Amaitu nuen konpetizio-maila horrekin apur bat nekatuta. Mendian, aldiz, arinetan nenbilen, lasterketa bat zen, baina gustura nengoen.

Mendi-lasterketak asko zabaldu

dira zu hasi zinenetik. Nolakoa izan da garapena?

Estratosferikoa. Ni hasi nintzenean, zapatilak adibidez, Salomon markakoak bakarrik zeuden, eta modelo bakarra. Edo elikadura: lehen gelik eta halakorik ez zegoen ezer, janariaren postuan jaten zenituen gominola batzuk, kakuete batzuk, eta aurrera.

Nola aldatu da hori dena?

Nik igarri nuen batez ere lehen umea jaio eta gero. 2013an jaio zen nire lehenengo semea, orduan nik geldialdi bat egin nuen haurdunaldian eta jaiotzaren ostean, eta bueltatu nintzenean, urte bat zeuden, flaskak —botila bigunak—, motxilak... Urtebetean asko aldatu zen.

“**‘Ez zara joango? Mundial bat galduko duzu?’. Ba bai. Ez dit konpentsatzen bularrean Espainiako bandera eraman behar badut”**

Eta gaur egun jarraitzen baduzu lasterketaren bat, heldu gara puntu batera non ez dakizun mendian zauden, atletismo-pista batean, mendia bera bihurtu den atletismo pista bat... Heldu gara puntu batera ez dakigula zertarako gauden, ez dugula baloratzen mendia zer den.

Lehiaren logika nagusitu da.

Larregi. Ni mendira txakurrekin joaten naiz beti, sekula ez entzungailuekin, okurritu ere ez zait egiten. Mendira zertan joaten zara bestela? Mendiko zaratak entzuten, txoriak entzuten, harri-zarata bat... erne egoten. Nik ikusten dut jendea arinetan beherra begira, entzungailuekin, erlojuari



adi... Ez dakite non dauden. Berdin zaie egon hemen, egon atletismo-pista batean, edo asfaltoan arineketan. Zentzu horretan eboluzioa niri ez zait gustatu, jendeak egin dezala nahi duena, baina profesionalizaziora bideratuta dago, eta ni ez naiz horrekin identifikatzen inolaz ere, ni guztiz kontrakoa, begira zelako erlojua daramadan [Casio beltz arrunt bat], pentsatu ere ez dut egiten zer desnibel egin dudana. Igo naiz horra gora eta jaitsi naiz. “Baina zenbat egin duzu?”, galdeztzen didate. Ba ez dakit. Mendia niretzat ez da horretarako, eta entrenamenduak egin daitezke berdin-berdin: nik ez daukat entrenamendurik, baina egin dezaket, adibidez, aldats batean erritmoa estutu. Egiten duzu, baina zaude armonia baten inguruarekin. Eta hori galdu egin da eta galtzen dabil.

Zuk topatu duzu zure ulerkera horretan mendi-lasterketetan jarraitzeko modu bat?

Bai. Nire filosofia honi eusten diot, eta hala ere hor nabil. Eta ikusten dut gainera jende bat dagoena buru-belarri sartuta entrenamendutan eta pulstometroari jarraituz, eta gero ikusten duzu nik bezala edo atzetik egin duela, orduan zertarako balio du? Askotan ez da entrenamendua, burua baizik; zure buruari jartzen diozun presioa. Ni inongo presio barik ibiltzen naiz; niri mendira joateak 3-4 orduz, nire kasa egoteak txakurragaz, entrenamendu moduan balio dit, eta egiten dut karrera batean honaino. Egin nezakeela gehiago entrenamendu espezifikoko batekin? Bai, baina ez dut gura, ez dit konpentsatzen nire eguneroko bizimoduan sakrifizio hori egiteak

edo ez gozatzeak honegaz. Gurago dut lortu dena delakoa, eta pozik bizi.

Erreferenterik izan duzu bide honetan?

Gaur egun niri galdetzen didate ea zer erreferente daukadan, ba ez daukat... Gure sasoiaren ez zegoen. Gure aurretik, begira, selekzionatzaile moduan egon zen

Rosa Lasagabaster, Zegama irabazi zuen bere egunean, hasierako Zegamak irabazi zituen, ba bera izan daiteke bat, baina gure sasoiaren ez zegoen erreferente neskarik, eta mutilik ere ez. Gaur egun bai, sare sozialean, nik uste dut horrela bihurtzen dela jendea erreferente, eta gaur egun nik jende asko ikusten dut erreferentea dena kirolatan, baina igual ez dira egokienak niretzat. Kirolariak dira, baina igual ez daukate mendiarekin lotura askorik. Mendiari eduki behar zaion errespetua nire ustez galdu egin da gaur egun. Errespetua edo balorea. Lehengoan ikusi nuen bat Aitz Txikin —hemen inguruko mendi bat da, harria, harri hutsa—, han serieak egiten. Ez dakit, egin serieak beste leku batean, ez? Baloratu non zauden, eta igo abiada bizian mendia nahi baduzu, baina ikusi non zauden, baloratu...



Azken hitza
ETIKETA BERDEA

Gure elkarrizketan, mendi-lasterketen gaur egungo norabideaz kezka agertu zuen hainbat aldiz Azkorbebeitiak, eta biharamunean whatsapp bat bidali zidan, kezka horren harira sortutako egitasmo baten berri emateko. Izan ere, Etiketa Berdea manifestua sortu dute hainbatek, mendi-lasterketen arloan “inguruarekiko eta hurkoarekiko errespetuzko jarrera” bilatu nahian, eta “elkarbizitzan, berdintasunean eta jasangarritasunean oinarritutako lasterketen” alde. Informazio gehiago: etiketaberdea.com

Emakume izateagatik arazorik izan duzu?

Kirol honetan ez dut uste egon denik diskriminazio-puntu hori. Egia esatera ez zait suertatu halako egoerarik. Inoiz esan du baten batek suertatu zaiola karrera batean hau eta hau, baina niri zorionez ez. Karrera batean, orain dela pila bat, atletismoko karrera bat zen baina mendira sartzen ginena, orduan bai akordatzen naiz sari ekonomikoa gutxiago zela neskentzat. Bidali nien email bat, baina ez zuten erantzun. Mendiko lasterketan ez da ikusten halakorik. Uste dut kirola bera gerora etorri delako izan dela.

Espainiako selekzioan parte hartzeari uko egin izan diozu.

Argi eta garbi. Ni ez naiz profesionala honetan, eta beti dago uko egiteko aukera.

ARGIA *Azoka*



Planeta prekarioan

XXI. mendeko krisi eta erresistentzien kronikak

Pello Zubiria Kamino

Prezinoa **22 €**



Zaldi bat ihes garrezko zelaian

Euskal prentsak ekarritako zenbait kronika gogoangarri (1869-2000)

Koldo Izagirrek egindako hautaketa

Prezinoa **25 €**

azoka.argia.eus

Jendeak askotan esaten du uko eginez gero ate batzuk ixten direla. Baina zer ate? Edo zer gura duzu lortu? Edo zeintzuk dira zure baloreak? Bi aldiz deitu didate. Batean, Europako txapelketa batera joateko deitu zidaten. Selektionatzailea gainera laguna da, korrikalaria, Palentziakoa, eta esan zidan bazekiela ezetz esango niola, baina emaitzengatik-eta deitu egin behar zidala. “Eskerrik asko”, erantzun nion, “baina badakizu ez naizela joango”. Ados. Eta ez da ezer gertatzen.

Eta beste batean izan zen bertikaleko Espainiako txapelketa irabazi nuelako, eta hori irabaztearren aukera zen mundialera joatea. Esan nienean ez nintzela joango, erantzun zidaten, “Ez zara joango? Mundial bat galduko duzu?”. Ba bai. Ez dit konpentsatzen bularrean Espainiako bandera eraman behar badut. Zentzu horretan argi daukat. Eta nik argi daukadan moduan, uste dut beste batzuek ere argi eduki beharko luketela, eta ez daukate; galdu egin da hori. Esaten dute: “Nik ez dut horrela pentsatzen, baina ezin dut uko egin ze gero, edo gura dut hona joatea...”. Bizitza honetan erabaki egin behar da, hemen bazaude hemen zaude, eta dena ezin daiteke eduki. Erabakitzen baduzu, guztiz zilegi, eta zure erabakia da, baina gero jakin hori eroaten, gero ez du balio haserretzea. Erabaki duzu Espainiako selekzioarekin joatea, gero norbaitek esaten badizu espainola zarela, ba onartu.

Landidez, albaiaria zara. Zertan aritzen zara zehazki?

Karrera amaitu nuenean, hasi nintzen lehenengo beharrean behien kanpainen, baina kanpaina hori oso laburra da, otsailetik irailera, ez daukazu urte guztiko lana. Eta gero hasi nintzen beharrean Durangoko klinika batean, eta orain nago beste batean. Daroat 2007tik, hamasei urte jada.

Artzain-txakurren txapelketekin ere baduzu loturarik.

EHATE, Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketa Antolatzaileen Elkarteak, sortu zen orain dela 30 urte baino gehiago, eta sortu zen Durangon, Gerediaga elkartearen eskutik. Gure aita beti izan da Gerediagako parte, eta EHATEko sortzaileetako bat izan zen. Niri animalien mundua asko gustatu zait beti, eta ez naiz baserrian bizi izan baina asko egoten gi-

nen baserrian amama bizi zenean. Orduan ni txapelketen kontu honetan sartu nintzen gure aitaren bitartez, eta epaimahai moduan. Gaur egun ere horretan segitzen dut. Hasi nintzen tontoka, beste barik, eta gure aita hil zenean apur bat gehiago inplikatu gura nuen, eta zelan egon den junta-aldaketa aurtan, erabaki dut ni ipintzea hor, mundu hori gustatzen zaidalako. Hiru artzain-txakur dauzkat, ganaduaren mundua asko gustatzen zait, eta aukerarik banu baserri batean bizi nintzateke. Gaur egun gure zuztarrak apur bat galtzen ari gara iruditzen zait, eta ni neu hobeto sentitzen naiz horrelako gauzak egiten. Pisu batean bizi gara, internet daukagu, baina ez gara bakarrik hori, gu lurrari lotuta bizi gara.

**“
Heldu gara puntu
batera ez dakigula
zertarako gauden, ez
dugula baloratzen
mendia zer den”**

**Etorikizunera begira,
zein dira zure ametsak,
erronkak, nahiak...?**

Ahalegintzen naiz inongo ametsik ez erronkarik ez edukitzen, ze gero horitik etortzen dira frustrazioak.

Hala ere, epe laburrera adibidez badut asmoa, aurtengo estiloan, lasterketa luzeekin jarraitzeko. Gaur egun lasterketa gehienak bizkorragoak dira, laburragoak, eskatzen dute gazteagoa izatea, txispa gehiago edukitzea, eta gu beterranoak gara jada. Euskal Herriko ultra-lasterketen koparen kasuan [lasterketa luzeak, 42 kilometrotik gorakoak], iazko proba berdina dira, ezagutzen ditut, eta orduan badaukat gogoan egiteko, ze errepikatzen duzunean hobetzeko marjina egoten da. Eta gero badaude lasterketa batzuk gustatuko litzaizkidekeenak egitea. Kima da bat, Italian egiten da. Brutala da. 55 kilometro dira, baina zazpi ordutik gora; oso teknikoak, pasada bat.

Oso teknikoak izateak zer esan nahi du?

Ba ahuntzen moduan gabiltzala. Harri asko, kateak... Arineketan egiten da, baina parte batzuk oso teknikoak dira. Izan daiteke *via ferrata* bat, edo bat-batean jaitsiera handi bat, eta nondik jaitsi asmatu behar duzu. Niri gustatzen zait ondo pasatzea lasterketetan, eta hala-koak dibertigarriak dira. Gero, Euskal Herri mailan, hainbat egin nahi ditut, betiko lasterketak, baina horiek gozamen hutsa dira; familia guztia joaten gara, karrera egin, bertan bazkaldu... Lasterketa handiei dagokienez, luzetxoak egin nahi ditut, nire adinerako egokiak. ●



Inozente

"Ume irlandar baten erantzuna, handitan zer izan nahi ote duen galderari: *Preso ohia*". Harkaitz Cano, 2023.

Behin eta berriz itzultzen ohi den *lanbideak* gaia suertatu da ikasturte hartan eskolan. Maistrak, betiko gisan, bat-banaka galdetu die neskatokoei ea zer izan nahi ote duten handitzearekin. Eta hor ari dira etorkizuneko erizain, suhiltzaile, maistra, futbolari, polizia -bai, polizia-, zurgin, ile apaintzaile eta astronautak azalera-tzen. Martinen txanda ailegatu da gero. *Eta zuk, Martin, zer nahiko zenuke izan handitzearekin?... Nik? Nik, mutilzahar.* Sasoi hartan, tiktoker, influencer, youtuber eta, oro har, *e-erre* hizkiez akitzen diren eginbide horien guztien aukera Palo Altoko garajeren batean gordinxko dago oraindik.

Mercedes txikia prest da, hor nonbait. Eta hantxe joan da mahastien herriko ikastola sortu berrira, maistra -berdinegin berri batengana. Oro berri da han, oro zail, kartsu, urri eta, akaso, hortaz, andereño hura dena mesedez eskaka dabil. *Mesedez, hartu margoak, mesedez, bildu paperak, mesedez, jantzi amantala;* mesedez hau eta mesedez bertzea. Laugarren egunean edo, *aski!* erran du 3 urteko Mercedes matxinatu batek dakien gaztelaniarik hoberenean: *Nardatu naiz aldiro niri dena agindu behar horrekin! Eta gainera, nire izena gaizki erraten duzu, merce, ce da eta ez mersssedes!*

Aspaldiko kontuak gure Mercedesenak, ereindako euskara hura guztia hazi-

Euskal XX. mende
akabera horretan,
maistrak nahiko
lan izan du listua
irensten eta pentsatzen
zein leihotik eskapu
egin haur ikusbera
horien galdemoduei

tik gora ernatu aitzinekoak, segur, orain dela hamarkada aunitzetakoak eta ez hainbertzeko hezkuntza legetakoak.

Herriko eskolan korroan jarrita daude haurrak. Goizeroko moduan ari dira haien kontu garrantzitsuez solasean. Bestak pasatu berritan, plazako ikurrin zuri berde gorriak, Nafarroako banderak eta haien ondoan dauden bertze zuri-beltz horiek zer ote diren ongi jakin ez eta, Anttonek baietz, berak badakiela: *Horrek erran nahi du Erratzuko lapurrak Erratzuko kartzelan beharko luke-tela egon eta Arizkungoak Arizkungoan, Amaiurkoak Amaiurko kartzelan eta horrela denak.*

Beharrik Antton. Euskal XX. mende akabera horretan, maistrak nahiko lan izan baitu listua irensten eta pentsatzen zein leihotik eskapu egin haur ikusbera horien galdemoduei.



NORA SALBOTX ALEGRIA
MAISTRA

Eta izurritea ailegatu da halako batean, bere etxealdia eta guzti. Noizbait baimena eman dute etxetik ateratzeko, hala moduzkoa, betiere. Hortxe, bakar-tuta, denboraz eta distantzian ere mugatuta, joan dira ama-alabak, ttipi-ttapa, amaren azalpenei bere 7 urteek uzten dioten heinean kasu eginez alaba. *Madarikatuak!* oihu egin du txikiak lore hori batzuk bildu bidenabar, *madarikatuak birusa eta poliziak!* Birusaz ahantzi airean gabiltza gaur, poliziaz ez hainbertze.

Gure etxeetako pantailez bertze alde-ra, genozidio baten zuzeneko emanaldi ahalkegarri honetan, niki belzdun palestinar mutiko koxkorra negar-marrumak dago. Halaxe erraten dio ondoan duen trikota azuleko lagunari: *Zure aita martirizatu dute, nik ikusi dut, nik oraintxe ikusi dut, bai, lo zegoen! Eta lagunak ihardetsi: Eta nola dakizu hori? Agian egiazki lo zegoen edo agian ez* (negar-marruma gehiago).

Palestinako haurrek ere preso ohi izan nahiko lukete, bere aberrian. Eta olibondo adarretara lotutako sokez gorgoinak egin.

"Haurrek adierazpen-askatasunerako eskubidea izango dute; eskubide horrek bere baitara bilduko du era guztietako informazioa eta ideiak bilatu, jaso eta zabaltzeko askatasuna, mugak kontuan hartu gabe, ahoz, idatziz edo inprimatuta, modu artistikoan edo haurrek aukeratutako beste edozein bide baliatuta". Haurren eskubideei buruzko konbentzioa, 13.1. artikulua, 1989. ●

Denborale menderatuak



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Urte-hondarrera hurbiltzen ari gara, behakoa lerratu zait dilindan dudan egutegira buruz: egun gutxi falta zaizkio den lekutik kendua izan aitzin. Astebete gabe, gogotik dut igorriko zintzilikitik zuzenean birziklatzekoen artera, asteek eta hilabeteek baitute, gupidarik gabe, zikindu, ziliportatu, zimurtu, zirrimarratu, zilatu; hainbestearino, non urte bizi eta peka izana baizik ez baitu irudikatzen dagoneko. Bereak egin du.

Anartean, eskuartean, egutegia hostokatu dut azken-aurreko aldikotz, eta laketu naiz Eguberri eta Urtats arteko garai hauetan haien ohikoa eta berezkoa zaigun nostalgiara. Tinta urdindun estiloz idatzitako eta jada irakurtezinak bihurtuak diren idazki zenbaitek perdukatuak dira egunak, asteak, hilabeteak. Hitz gutxitan da laburbiltzen, ororen buru, urtea: gertakari pozgarri, mediku hitzordu, talo txanda, ARGIAko iritzi entrega epe, zerga eta asegu ordainketak.

Urtearen aurreko puntara heldu eta hortxe ikusi ditut, duela hamabi hilabete zirrimarratu zotal egunetako iragarpenak.

Zenbait oroitzapen etorri zait gogora: gurekin bizi zen ttanta xahar batek,

urte guztiz sasoi honetan aipatzen zituena *zotal egun* famatuak. Urteko lehen egunetan (lehen hamabietan, preseski), aroari zorrozki behatzen zion. Ez orenez oren. Baina kasik. Egunean bizpahiru aldiz, bederen, memento hartan egin zuen aroaren berri markatzen zuen xeheki paper puska batean. Ondotik, paper puska zimurtu hori hartu eta egutegi batean, hilabete bakoitzaren buruan, erditsuan eta bukaeran, larriki eta hitz gutxiz idatziko zuen, bere ustez eginen zuen aroa. Sinestea baitzen, urteko lehen egun horietan egiten zuen aroa, urteko hamabi hilabeteetan egin behar zuena zela, edo bederen hurbiltze zerbaite. Adibidez: urtarrilaren 5eko aroak irudikatuko zuen maiatzean egin beharko zuena.

Zertarako? Laborantzan oinarritu gizarte hartan, urteak zer ekar zezakeen aurreikusteko, ez-usteen eta ez-beharren uxatzeko, agian; dudarik gabe beldurren, denboraren eta naturaren menderatzeko esperantzarekin eginen zuketena aitzinekoek. Segurki, iragandako urtea baino hobea datorrelako itxaropena adierazten dute sineste horiek guztiek.

Dena izanik ere, urte osoa iragaten genuen, egutegia sukaldeko murrutan

loturik, hilabetez hilabete ezarriak ziren oharrak irakurtzen, ea amatxik egin iragarpenak gauzatzen ziren. Eta aitortu behar da hamarretatik zortzitan arrazoi eman behar geniola.

Egun horien ohiturari jarraitzen diogu oraindik zenbaitek, nahiz eta, gaurko egunean, zerbitzu meteorologikoak sekulan baino garatuagoak diren, egurtsa idatziko dugunak, larri-larri, betiko paper puska zimurtu batean eta sukaldeko zoko batean atxikitzeko, agian behakorik ez sekulan gehiago emanez.

Agian sineskieriak dira, eta sinesten duenak berea aurkituko du eta frogatuko. Agian egiazki behatu behar litekeena da. Berdin du. Nik, ahapetik aitortuko dut, nostalgiaz eta sineskieriaz, aurten ere, zotal egunetako aroa idatziko dudala, ez datorkidana menperatzeko ahaleginean. Iragan urtekoa, aldiz, edukiontzi horira eramanez dut. Gogoan atxikitzeak gogoan baititut eta gaineratekoak nahiago baintuzke ez oroitu. Menderatuz eman dezakegunez iazkoa, heldu diezaiegun datorrenari. Aitzineko urtea izan zena baino (oraindik) hobea gertatzea desiratuz, betiere, ondokoa. Hoberena, ez dezagula ahantz, oraino gertatzekoa baita. ●

Busturialdea, nora zoaz?



IÑAKI BARCENA
EKOLOGISTAK MARTXAN
ETA EKOPOL-EKO KIDEA

Joan den urriaren 28an manifestaldi jendetsua egin zen Gernikan. Aspaldiko partez, 1987an bonbardaketaren 50. urtemugaren harira egindakotik, agian, handiena. Berton, instituzio politiko zentral, autonomiko eta probintzialesetik babestutako Guggenheim museo proiektu berriaren inposizioa salatu zen. Agerian geratu denez, Busturialdeko herritarren parte handi batek ez du begi onez ikusten “kanpotik” ekarri nahi dieten “garapen” turistiko eta ekonomiko-kulturalerako eredu hori.

Lau hilabete aurretik, maiatzaren 30ean, Astra espazio autogestionatuan 50 lagunuen batzar batean aurkeztu zuten “Busturialdeko Iraunkortasunerako Indizea” sortzeko prozesu parte-hartzaile baten proiektua, EHUKo Ekopol eta Parte Hartuz ikerketa taldeko, OMA-Leko (Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia) eta Euskal Gune Ekosozialistaren partaideek.

Nire aburuz, bai helburuetan bai prozeduretan ere, bi adibide horiek krisi ekosozialaren aurreko irtenbide eta soluziobideak topatzeko bide kontraesankor eta antagonikoak dira, argi eta garbi.

Batak, nazioarteko frankizia ezagun baten leloarekin, eta Urdaibaik dituen dohain natural eta paisajistikoen erakargarritasuna profitatuz, hazkunde ekonomikorako proiektu bat ezarri nahi du, goitik behera eta inpaktu so-

zio-ekologiko negatiboak aipatu edo neurtu gabe.

Besteek, aldiz, prozesu parte-hartzaile bat diseinatu dute, non ikerlari eta herritarren arteko elkar kolaborazioan bost ardatzen azterketa eta neurketa egin nahi duten. Hasteko, ardatz metabolikoa, hots, energia eta materialen sarrerak eta irteerak, Busturialdean nolakoak diren eta nola ari diren eboluzionatzen ikusi eta ikasi. Edo bertoko ekosistemek ematen duten ingurumen kalitaterako datuak bildu eta aztertu, eta modu berean jarduera ekonomikoekin, gizarte kohesioarekin eta hiritarren parte-hartzearekin edo bizi-zaren bestelako dimentsioarekin.

Batzuentzat, soilik adituek egingo dute diseinua, ondo ordainduta, baina instituzio eta partidu gobernarietako markatutako enkarguaren jarraipena eginez, hazkunde ekonomikoa helburu ia bakarra izanik, alegia. Besteon ikuspegitik, proiektu pilotu bat garatuko da Busturialdean, baina erreferentzia izan daitekeena Euskal Herriko beste bailara eta eskualdeetan. Busturialdeko datuak (bost ardatzetakoak) bildu eta bertoko herritarrekin, eragile sozialekin, elkarrekin eta instituzioekin eztabaida prozesu parte-hartzaile bat martxan jarriko da, hurrengo bi urteetan. Diru bila ari dira lanak antolatzeke. Besteak, denon diruarekin negozio berriak ari dira biltzen. ●

Titi feria



ITXARO BORDA
IDAZLEA

O rain arte pantaila txikiko izarlokek zuten ariketa horretara laprast egiten. Bularrak erakustea zeregin heroikoa dela frogatu digu hainbat emakume mediatikok, hondar hamarkada hauetan. Batzuek horrexegatik aski eta nahiko ordaindu ere omen dute. Ekintza artistikoa ere izan da frankotan, gure gizarte pornografikoen ahalke edo lotsa faltsua salatzeke. Ez dut izenik emango, izenak ematea itsusia delako.

Euskaldunok ez gabiltza gibelkoi. Mendeetan, bereziki emazteen gorputzak, ahalkez tapaturik atxiki ditugu, baina

gaur egun halako askatasun haize batek bulkatzen gaitu gure intimitateaz hitz eta bertso egitera, hilekoak, aluen hezetan zirrargarriak edo larrua jo ondoko isuri misteriotsuak aipatzera, hots, ahoan bilo kizkurrik gabe. Eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketako agurren orduan, bata eta bestea ausartu ziren, gutxiago ezin egin, beren titi-bularren bat erakustera, jendetza zoratuaren txaloen erdian...

Nire arima jansenista ari zait belarri zulora galdezka: bertsozaleak neurri horretarainoko biluzteak eskatzen al ditu? Noraino, neskak? ●

Oxala



KOLDO ALDALUR HIRIGOIÉN
KAZETARIA

Ez naiz Greziako Lesbosetik itzuli zaharra. Bertan, Mitilene-n, Zaporeak Elkarteko euskaldunak 2.700 asilo eskatzaile ingururi egunean otordu bat eskaintzen die: arroza eta potajea, pita ogia eta fruta ale bana. Duintasunaren muga, 150 gramo errazioko. Arazoa da Kara-Tepeko kanpamenduan 5.000 lagunetik gora daudela.

Bueltan nentorrela, han gertatzen ari denari buruz idaztea deliberatu nuen, nire motzean, Zaporeakekoek egiten duten lana zabaltzen lagun nezakeelakoan. Baina, paper zuriaren aurrean jarri naitzen, ohartu naiz ez daukadala zuentzat ez dakizuen ezer.

Denok baitakigu Europako agintariak, batik batik Afganistanetik, Siriatik, Iranetik, Somaliatik eta Eritreatik Greziara iritsitako asilo eskatzaileak han gordeta mantendu nahi dituztela European trabarik egin ez dezaten. Denok dakigu ere, agintariok Greziako Gobernuari Erregistro eta Identifikazio kanpamendua bere lurra izateagatik ordaintzen dioten dirutza ez dela asilo eskatzaileentzat, baizik Greziako Gobernuarentzat, militarrentzat eta poliziarrentzat.

Nork ez daki pertsona hauek euren herritik ihes egin beharrean izaten di-

Oxala Aamisa, Farid eta kanpamenduko gainontzekoek akordatuko bagina Zaporeakekoek janari pixka bat eskatzen digutenean Lesbosera bidaltzeko

rela hainbat arrazoi direla medio? (Herrialde hauetan emakumeen egoera zein den ezagututa, alde egiteko duten nahia justifikatu beharrik ba al dago?).

Nork ez du noizbait pentsatu han dauden umeek -2.000 inguru-, ez dutela eskolara joateko inongo modurik? Beraian mundua kanpamenduko bost hektareetara mugatzen da. "Aamisa, Farid, Shana eta Zarifah, zuek ba al dakizue zer zen Himalaya?". Seguru oraindik barrez ari direla urte guztian elurtuta dauden mendi erraldoiak badirela esan zien atzerriko gizona gogoratzean.

Bertan izan gabe ere, zuk eta nik badakigu prostituzioa badela lekuri miserabileenean ere, posible egiten duten miserableak, sastraka bezala, toki guztietan azaltzen direlako.

Nork ez daki ilusiorik eta etorkizunik gabeko tokiak direla horrelako "errefuxiatu" kanpamenduak?: Amira-ri Europara joateko hirugarrenez eskubidea ukatu diote. Kanpamenduan ere ezin du egon, bere etorkizuna erabaki duelako ezagutzen ez duen epaileren batek. Bi aukera ditu: kartzelara, Grezian edo bere herrira, Afganistanera, bueltan. 20 urte ditu eta ez du oraindik hil nahi. Amirari begietara begiratzea zaila da. Eta animo hitzek zentzua galtzen dute.

Hala ere, sarri, *Inshallah* eta *Masha-Allah* (Inxala! eta Maxala! ahoskatuta) entzuten da Mitileneko kanpamenduan. *Jainkoak nahi izan duena* esan nahi omen du. "Oxala" falta zaiela iruditzen zait itxaropenaren bertsoari errima bat gehitzeko. Oxala Aamisa, Farid, Shana, Zarifah eta kanpamenduko gainontzekoek akordatuko bagina Zaporeakekoek janari pixka bat eskatzen digutenean Lesbosera bidaltzeko.

Eta zuek hori dena badakizue, zertan ari naiz ni lerro hauek idazten? ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com



AMILLUBI

LURRA TAUPAKA



Gipuzkoan, Urola ibaiaren meandroan, 90.000 m² lur erosiko ditu Biolurrek kolektiboan, laborari agroekologikoek lurrak izan ditzaten eta herritarrok elikagaiak.

Denon laguntza behar dugu: Babestu Amillubiko metro koadro bat lur. Informazio osoa eta ekarpena egiteko aukera:

www.amillubi.eus

Biolur
Gipuzkoa
Nekazaritza Ekologikoaren Altxako Ekartera

+ 27 eragileren babesarekin

**LURRA
HERRIARI
DEIKA**



Nerabeak eta sexu-heziketa

PORNOA OTE DA ARAZOA?

Emakundek Azaroaren 25erako zabaldutako kanpaina pornografiaren inguruan ardaztu zuen. Erakundearen ustez, pornografia haur eta gazteen sexu indarkeria eskola bihurtu da.

Egitasmoa kontrastatu dugu aditu zein arituekin, eta EAEko instituzioen koherentzia falta kritikatu dute: sexu-heziketaren premia aldarrikatzen duten arren, ez dute hezkuntza-curriculumean txertatzeko politikarik.

Haur bat izaren azpian mugikorrean bideo bat ikusten. Gizon lirain bat, kamiseta barik, ohean eserita: “Angel Rossi dut izena eta aktore pornoa naiz. Hilabete pare bat daramat zure semeari menderatze teknikak irakasten, eta zure alabari nola izan menderatua”. Emakundek Azaroaren 25erako prestatutako *spot*-a da, EUDEL eta hiru foru aldundien atxikipenarekin zabaldu zutena. Gizon horren hitzen ondoren, andre baten off-ahotsa entzuten da: “Pornoa emakumeen aurkako indarkeriaren eskola da. Ez dezagun sexu-heziketa pornoaren eskuetan utzi”.

Emakunderen prentsa sailak ARGIAri zehaztu dio *Save the children*-ek 2020an argitaratutako txosten batean oinarritu dela. Espainiako Estatuko 13 eta 17 urte bitarteko 1.753 gazte elkarrizketatuta, erdiak adierazi du pornografian inspiratzen dela sexu-esperientziak dituenen. Horrez gain, %30ak onartu du bideo horiek direla sexualitateaz duten informazio iturri bakarra.

Sexologo, sexu-hezitzaile eta guraso feministekin kontrastatu dugu kanpaina, eta antzeko hitzekin erantzun dute seiek: ikuspuntu alarmista, sinplista eta erredukzionista ematen duela. Bat datoz diagnostikoarekin neurri batean: sexualitatea esploratzeko irrika duten haur eta gazte askoren helduleku nagusia da porno *mainstream* heterosexuala, eta horrek estereotipo zein botere-harremnan sexistak islatzen ditu. Baina ez dute konpartitzen pornografia deabruztearen estrategia.

Izan ere, denek nabarmendu dute beste produktu kultural (telesailak, bideojokoak...) eta instituzio sozial (kuadrilla, familia...) andanak duela eragina gazteen sexu- eta bikote-harremanetan. Orduan, zergatik horrenbeste zurrumbilo pornoarekin? Bruno Martínez Incisex eta Gurenduz sexologia institutueta irakasleak erantzun du: “Sexuak pizten du alarma berezia. Harremani buruzko mezu arriskutsuak topa ditzakegu *Friends*-en, baina instituzioek ez dute komedia erromantikoaren kontrako kanpainarik egiten”.

Hiruki Larroxa kooperatibako kide den Ibai Fresnedoren ustez, EITBk eta TV3ek ekoiztutako *Porno belaunaldia* dokumentalaren boom mediatikoaren trenera igo da Emakunde: “Ukaezina da kezka badagoela hezkuntza komunitatean eta gurasoen artean. Landu behar dugu, baina ez alarmismotik, ezta kutsu sexofobo edo erotofoboa duen ikuspegi batetik”, adierazi du. Bat dator Florencia



HARDWERK / ANDREA GALAD ©

Arriola, Lore sexologiako sustatzailea: “Gaur egungo erronka da haur eta gazteek porno sexistak eta bortitzera duten sarbidea, eta horrek eman diezaiekeen informazio nahasgarria. Baina irtenbidea ez da pornoa jomugan jartzea, sexu-heziketa integrala txikitatik bermatzea baizik, eduki horiek heltzen zaizkienerako begirada kritikoa izan dezaten”.

Metafora desberdinekin kokatu dute pornoa fikzioa eta fantasien eremuan gure elkarrizketak: superheroien filmen ikusleak ez direla hegan egiten saiatzen, edota akzio-bideojokoaren zaleak ez direla tiroka hasten. Hala, Arriola *Porno belaunaldia*-rekin kritikoa den arren, positibotzat jo du porno-aktoreek nerabeei azaltzea praktika jakin batzuk antzetzeko baliatzen dituzten trikimailuak: “Haur eta gazteei azaldu behar diegu ez direla eszena errealak, eta pertsonen arteko benetako interakzioak konplexuagoak direla”.

MEZU HUTSALAK ETA PLAN ESTRATEGIKO FALTA

Nerabeei interneten topatzen zuten pornoa kritikoki aztertzeke eta alternatiba etikoak ezagutzeko egitasmo bat jarri zen martxan Gasteizen 2017an, Udalaren ideia-lehiaketa baten irabazle izan ondoren: *Porno Eskola* gida didaktikoa. Urriaren 26an aurkeztu zuten sustatzaileek, eta abenduaren 18an itxi, Arabako Itunpeko Ikastetxeetako Ikasleen Guraso Elkartearen Federazioaren presioen ondorioz.

Azaroaren 25eko kanpaina aurkezteko prentsaurrekoan euskal erakundeek helarazi zuten mezua da kalitatezko sexu-heziketaren premia, baina elkarrizketatu guztiek salatu dute politika zehatzen falta. Hurrengo irakurketa egin du Norma Vázquez, Sortzen aholkularitzako zuzendariak: “Instituzioek esaten dutenean pornoaren esku dagoela sexu-heziketa, zer esan nahi dute, haien hezkidetzak programek porrot egin dutela?”. Antzeko kritika egin du Fresnedok: “Kanpaina baliogarria izango litzateke, plan estrategiko batekin batera aurkeztu izango balute, baina ez dago mamirik, ezta baliabiderik jartzeko asmorik ere. Zer egin du Emakunde hezkuntza lege berrian sexu-heziketa txertatzeko?”.

Aitzole Araneta sexologo eta berdintasun teknikariaren esanetan, “instituzioek gustuko dute halako mezu hutسالak botatzea, baina oso gutxi sakontzen dute sexu-heziketaren ulermenean”. Hala, hiru sexologoen salatu dute haien lanbidearekiko aitortza eta errespetu falta: “Sexu-heziketak tresnak eman behar ditu giza sexu-egitatearen adierazpenen konplexutasuna ulertzeko, baita sexu-identitatea eta pertsonen arteko topaketa lantzeko ere. Biologia irakasteko, zientzietan trebakuntza beharrezkoa da; berdin-berdin gurean”, adierazi du Mártinezek. “Suteak amartzeko deitzen didate zentroetatik, egoera kezagarri bat eman denean, lau orduko saioa emateko. Horrela ez dago lan egiterik”, gaineratu du Arriolak.



HARDWERK / MICHELLE GUTIERREZ ©



Silvia Allende *Mamá folla* fanzinearen egilea da. Guraso eta *follologo* honek (hala aurkeztu da erreportaje honetarako) funtsezkoa deritzo ikasleei sexu-askapen eta aniztasun balioak zeharka eta sakon lantzeari, orain arteko pilulatxoetara mugatu ordez: “Noizko ikasgai bat, formakuntza duten pertsonen gidatua? Noizko espazio seguruak solas egiteko norberaren gorputzari buruz, duintasunari buruz, edota harremanetan eta plazeretan egon behar duen parekidetasunari buruz?”.

PURITANISMOA ETA KINKIFOBIA

Hurrengo datuan oinarritu da Emakunderen kanpaina: eszena pornografikoen %88,2k emakumeen aurkako indarkeria fisikoa edo hitzezkoa du. “Ezin dugu onartu emakumeenganako indarkeria, umiliazioa, eta dominazioa zer edo zer naturala bihurtzea. Ezin dugu onartu sexua indarkeriarekin nahastea”, defendatu zuen Mirend Elgarresta erakunde horren zuzendariak kanpaina aurkezteko prentsaurrekoan.

Mamá folla fanzinearen egileak zailtasun jarri du halako datu baten atzeko metodologia zein asmo ideologikoa: “Zer irizpide erabili dute ebazteko zein eszena diren bortitzak eta zeintzuk ez? Eta nork egin du ikerketa, Nafarroako Unibertsitateak?”. Bada, Emakunderen prentsa sailetik erantzun digute Balearretako psikologia ikasle baten Gradu Amaierako

“Ukaezina da kezka badagoela hezkuntza komunitatean eta gurasoen artean. Landu behar dugu, baina ez alarmismotik”

Ibai Fresnedo

Lanetik atera dutela, eta hor topatu dugu Amerikako Estatu Batuetako 2010eko ikerketa batetik hartua dela datua.

Edonola ere, feminista akademiko abolizionistetan oinarritzen da Emakunderen diskurtsoa. Esaterako, Mónica Alariok *Política sexual de la pornografía. Sexo, desigualdad y violencia* saiakeran defendatzen du pornografiak “sexu-indarkeriaren etengabeko apologia” egiten duen heinean, desagerrarazi behar dela berdintasunerantz aurrera egiteko. Horren frogatzat hartzen du arrakasta berezia dutela emakumeen ezetza errespetatzen ez duten eszenek.

Andrea Dworking feminista erradikal abolizionista da korrante horretan aitzin-

daria. “*Pornography: men possessing women* 1981eko saiakeran defendatu zuen pornografia dela plangintzarako tresna, eta sexu-erasoa horren emaitza”, azaldu du Mártinezek. Beste muturrean, Paulita Pappel porno etiko ekoizlearen *Porno-positive* saiakera gomendatu digu sexologoak. *Exberliner* hedabideko elkarrizketa batetik hartu dugu Pappelen hurrengo aipua: “Emakume askok bortxaketa fantasiak dituzte. Noski, horrek ez du esan nahi benetan bortxatuak izan nahi dutenik. Ez dut uste pornoak hori sustatzen duenik errealtatean. Aldiz, sexu-fantasiak tabu bihurtzeko bai daramala komunikazio eta informazio gabeziak, frustrazioak, eta kasurik okerrean, benetako biolentziara”.

Ikasketa Feministen Masterra egin ondoren, prostituzioari buruzko amaiera lana egin zuen Arriolak, *Putas, feministas y mis contradicciones* liburura moldatu duena. “Feminismo instituzional abolizionistak badu araztasun moralak aldarrikatzeko joera. Ez ditu erotikaren dimentsio jakin batzuk ulertzen; ez du onartzen emakumeon promiskuitatea edo desioa zikintzat jotzen diren praktikak. Sexuan gustuko izan dezaket umiliatua izatea. Ez da sexu feminista existitzen, sexu-harreman pozgarriak baizik”.

Ildo beretik erantzun dio Norma Vázquezek indarkeriaren erotizazioaren aurkako diskurtsoari: “Nork erabakitzen du zer den egokia eta zer ez ohean? Laz-



tanek eta erromantizismoak egon behar dute bai ala bai? Emakumeok ezin gara berotu sexu gogorra ikusten edo praktikatzen? Onespina eta ahalduntzea defendatu behar ditugu, bai, baina desira normatibizatzea puritanismo hutsa da". Hala, indarkeria matxistan aditua den aldetik, atzerapausoa iruditzen zaio Emakundek zabalduzako mezua: "Urteak daramatzagu indarkeria faktore anitzeko arazo gisa aztertzen. Ez da egia mutilek pornoa ikusiko dutela eta erasotzaile izaten ikasiko dutela, ezta neskek pornoa ikusteagatik indarkeria normalizatuko dutela. Ez da horren sinplea. Erasotzaileek bortxatzen dute hori egiteko boterea eta inpunitatea sentitzen dutelako, besteak beste, ebazpen judizial askoren erruz".

Aranetak gaineratu du pornoaren industria oso kritikagarria den arren, komeni dela horretan ematen diren haustura interesgarriak baloratzea: "Adibidez, orain dela gutxi arte pentsaezina zen porno heteroan gizonaren ipurtzuloarekin lotutako praktikak agertzea".

Porno belaunaldia-n erdeinu handiz hitz egiten dute nerabe zein helduek orgie buruz edota zigor-jolasei buruz, indarkeria matxistarekin nahastuta. Gutxiengo erotikotik espezializatua dago Martínez, eta kinkifobia-aren aurka mintzo da bere sare sozialetan: "Praktika eta desira jakin batzuk higuigarritzat hartzen dira, ulertu ordez simulazioak eta jolasak direla", azaldu du.

Gainera, nabarmendu du abolizionistek irudi partziala ematen dutela, pornoan agertzen diren dominazio-sumisio jolasetan maiz gizonak agertzen direlako emakumeek dominatuta, edota porno LGBTBI+ean ere ematen direlako praktika sadomasokistak. Bere ustez, kinkifobiak bat egiten du misoginia eta homofobiarekin: "Alde batetik, pentsatzen dute emakumeen sexualitateak fina eta samurra izan behar duela. Bestetik, ez diete arretarik ematen gay eta lesbien sexualitateari, akaso haien 'perbertsioak' asumitzen dituztelako, subjektu desbideratutzat dituztelako".

Hiruki Larroxako tailerren ardatz bat da sexualitate eredu hegemonikoa aztertzea eta horrek ezartzen duen marko diziplinatzailea kritikatzeko. Hala azaldu du Fresnedok: "Heteropatriarkatuak sustatzen duen eredu erotikoa kointzentrikoa da, baina batez ere moralista eta arautzailea. Bazterretan kokatzen diren praktikak, gorputzak eta subjektuak ilun edo arriskutsu gisa aurkezten dira". Adierazi du nerabeek maiz galdetzen dietela *kink* praktikengatik, baina kutsu negatibo batekin: "Harritzen nau askok 'parafilia' terminoa erabiltzen dutela. Erantzuten diegu praktika erotikoen balorazio sistema etengabe aldatzen dela, kultura eta gizartearen unean uneko paradigmen arabera, adibidez, orain dela gutxira arte parafiliatutzat hartzen zela sexu orala. Flipatu egiten dute!".

Hurrengoa ondorioztatu du *Mamá folla* fanzinearen egileak: "Puritanismoak ez gaitu indarkeriaren aurrean babes-ten, puritanismoa bera baita indarkeria: bekatua eta kulpa betiketzen ditu". Hala, kontra-kanpaina abiatu du bere inguruko haur eta gazteen artean: "Argi utzi nahi diet kuriositatea ez dela txarra".

HELDUKERIA

Emakunderen kanpainak nerabeei buruzko irudi estereotipatu eta paternalista eman duela adierazi dute gure sei elkarrizketatuek, eta nabarmendu dute gazteek aurreko belaunaldiek baino landuagoak dituztela sexu askatasun eta tratu-on baliok. Aranetaren esanetan, "Azaroaren 25ean kokatzeak transmititzen du neska guztiak biktima potentzialak direla, eta mutil guztiak erasotzaile potentzialak". "Ikuspegi izugarri bidegabea da gazteekiko, agentzia ukatzen die-lako", berretsi du Vázquezek. Fresnedok adierazi du eskoletan gazteak ere kexu direla helduek duten irudi horretaz: "Esaten dute: 'denok ez gara heteroak', edo 'denok ez dugu pornoa modu berdinean kontsumitzen'".

Arriolak ere nabarmendu du gaur egungo neska gazteak ahaldunduagoak daudela, mugimendu feministak egingo dako lanari esker. Mutilei dagokionez, 16 urteko batek esan ziona du gogoan: "Irakasten diguten bakarra da ezetza ezetz dela". Ezagutza handiagoak dituz-



HARDWERK / ANDREA GALAD ©

te denek, esaterako, identitate ez binarioez edo asexualitateaz mintzo dira. “Erantzunen bila daude, haien desira eta sentipenak ulertzeko. Onartu dezagun pornoarekin kontaktuan daudela, eta alternatibei buruz hitz egin dezagun, modu positiboan, aniztasuna ardatz”, defendatu du.

Hala, Hiruki Larroxako hezitzaileek porno feminista, etikoa edota indie-a existitzen direla nabarmentzen dute haien tailerretan, baita autoekoizpenaren aukera ere: “Esaten diegu posible dela norberak bere pornoa sortzea, bere kontsumorako edo lagunekin konpartitzeko. Baina azpimarra jartzen dugu pribatutasun sexualerako eskubidean: ez bakarrik sexting-ari lotuta, baizik eta gurasoek ezartzen dituzten kontrol-mekanismoen aurrean ere bai”. Arazoa da porno alternatiboa ordaindu behar dela eta, aldiz, doako edukiak eskaintzen dituzten plataforma ez-etikoetara jotzen dutela gazteek (eta heldu gehienek).

Edonola ere, Aranetak gaineratu du *mainstream* horretan ere gero eta presenteago dagoela gorputz-aniztasuna, eta hori inportantea dela LGTBI+ pertsonentzat: “Porno transa garrantzitsua izan daiteke nerabeak kokatuak sentitzeko unibertso erotikoa eta, oro har,

“Emakumeok ezin gara berotu sexu gogorra ikusten edo praktikatzen? Desira normatibizatzea puritanismo hutsa da”

Norma Vázquez

iruditeria sozialean”. Horrez gain, “tutelaje helduzentrista” alboratzearen premia aldarrikatu du: “Helduok ez dugu pontifikatu behar. Entzun ditzagun haur eta nerabeak: ez dira tuntunak eta ez daude horren galduak. Onar dezagun haien sexualitatea; helduona bezain koitozentrista eta orgasmo-zentrista ez dena”.

Fresnedoren ustez, “hipokrita” da pornoari buruzko eztabaida soziala gaz-

teengan zentratzea: “Tailerretan nire burua aurkezten dut porno-kontsumitzaile gisa. Helduok autokritika egin behar dugu sexualitatea ulertzeko eta bizitzeko dugun moduari buruz. Sekulako presioa jartzen dugu gazteengan: esaten dugu etorkizuna dagoela haien esku, baina oraina helduon esku dago, eta gu gara haien eredu”. *Porno belaunaldia* dokumentaletik gustatu zaio gurasoek seme-alabekin duten komunikazioa: “Konfiantza eta ulermena haurtzarotik lantzen badute, ez dira arnasetuka helduko nerabearora”.

Baina prest al daude guraso guztiak seme-alabak sexualitatean modu positiboan hezteko? Arriolak ez du uste: “Asmo ona badute ere, askok kezkarakin eta beldurrarekin konektatzen dute; horregatik lagungarria izango litzateke haiek ere profesionalen aholkularitza izatea”. Edonola ere, belaunaldien arteko bi norabideko komunikazioa gomendatu du, zintzotasunean eta jakin-minean oinarritua. Hala bizi du Silvia Allendek bere amatasunean: “Oso ondo datorkigu apaltasun pixka bat: onartzea ez dugula ideia handirik eta tabu mordoak daukagula barnertuta. Plazer bat da gure seme-alaben eskutik haztea!”.

AMA FEMINISTEN GAKOAK

► **JUNCAL ALZUGARAI**
fisioterapeuta, sexologian trebatua,
eta Alooa eredu anatomikoaren
sortzailea:

“Bi neraberen ama naiz, eta etxean txikitatik landu dugu sexu-heziketa, ahal izan dugun moduan. Telefono mugikorrak utzi dizkiegu sentitu dugunean prest daudela modu askean erabiltzeko, ez garelako kontrolatzearen aldekoak: haien intimitatea behar dute, esperimintatzeko askatasuna eta irizpidea garatzekoa. Haien garuna ez da helduen modukoa, emozio fuer-teak behar dituzte; horregatik jotzen dute sentsazio berri bila pornora edota drogatarara. Arazoa da fikzio moduan kontsumitu ordez, heziketa moduan hartzen dutenean. Instituzioek egin behar dute bere lana nerabeak norae-zean ez uzteko.

Nagusiak, 14 urteko semeak, esan digu gustuko duela pornoa ikustea noizbehinka, eta gu hor gaude, hitz egiteko prest. Niretzat txarragoak dira beste gauza batzuk, adibidez txikitatik bideojoko sexistetan jolastea; hori ez dute instituzioek hainbeste lantzen. Betidanik kontsumitu da pornoa, nik ere kontsumitu dut eta horrek ez nau egin indarkeriaren aldekoa.

Emakunderen kanpaina atera zen *Porno belaunaldia* dokumentalaren eskutik. Egia da porno misoginoa eta bortitza dagoela, baina badago halaber porno etiko eta feminista. Zer egiten dute instituzioek pornoa deabrutzeaz gain? Zer alternatiba planteatzen dute? Norengan jartzen dute ardura? Gurasoengan? Gizarte ereduarengan? Zinikoak gara, gero! Pornoaren aurka modu sutsuan egiten duten askok kontsumitzen dute etxean. Hausnarketak askoz sakonagoa eta zabalagoa izan beharko luke. Film erromantikoetan ere badago indarkeria”.

► **CLAUDIA CANTÓN** lotura
sexoafektiboetan aditua den
terapeuta:

“Haurrek txikitatik pornoa ikusten badute, izango da eskoletan eta familietan asebetetzen ez dugun behar bat dutelako. Ohartu nintzen nire alabak

premia zuela irudikatzen nolako den sexu-harreman bat, ez bainintzen gai hitzekin azaltzeko. Orduan, eszena erotikoak agertzen ziren artelanak erakusten nizkion. *Sex education* telesaila ere ikusi dugu elkarrekin, eta adierazi diot zer jorratzen duten ondo eta zerekin ez natorren bat. Litekeena da aurrerago pornotik hartutako eszenak ere baliatzea berarekin hitz egiteko. Badakit tabu bat urratzea dela, baina iruditzen zait indarkeria prebenitzeko modua izan daitekeela; noiz-bait deseroso sentitzen denean, hori izendatzeko gai izan dadin.

Bestetik, nik ez diot sexualitateari buruz hitz egiten izate abstraktu bat izango balitz bezala, baizik eta lehenengo pertsonan: nire sexualitateari buruz hitz egiten diot. Esaterako, ez da berdina azaltzea emakumeek haien artean sexua izan dezaketela, ala kon-tatzea nik emakumezko bikotekide bat dudala. Orduan, errazago galdetuko dit: ‘Eta zer moduz? Nola funtzionatzen du horrek?’”.

► **BEA SEVER** sexologoa eta Naizen
elkarteko kidea:

“Nire seme txikiak 14 urte ditu, elkar-ritzeta bakar bat izan dugu pornoari buruz, baina 21 urteko nire beste semearekin izan ditudan solasaldiak ere entzun ditu. Nik betidanik atera dizkiot sexualitateari buruzko gaiak, telebista ikusten dugunean, esaterako. Asko hitz egin dugu koitoaren hierarkizazioaz. Nagusiak porno *mainstream*-a ikusten du eta ez nau batere kezkatzen, ikuspegi kritikoa duelako; mundu gerrei buruzko filmak maite ditu, eta ez naiz ari pentsatzen armak erabiltzen has daitekeela. Are gehiago, berak badau-ka etengabeko kezka: *baboso* bat ez izatekoa.

Txikia mutil transa den aldetik, badaki porno *mainstream*-a ez dela bere eredu; oso kontzientea da, pornoa bezala, gizartea ere ez dela bere eredu egokitzen. Adibidez, mutil-talde batean hasi direnean hitz egiten masturbatzeari eta eiakulatzeari buruz, konturatu da gizartean ez dela aintzat hartzen mutil aluduna izatearen auke-

ra. Sarketa-eszenak ikusten ditu etengabe pantailetan, ez soilik pornoan. Alde horretatik, sexu-aniztasuna islatzen duen pornoa erabilgarria izan daiteke askotariko gorputz, praktika eta erotikak ikusteko. Naizen elkarteko to-paketetan, Aitzole Aranetak erotikari buruzko tailerra gidatu zuen, eta nire semeak esan zidan parte hartuko zuela, nagusiago denerako *tipak* izateko!”.

► **ANIA YOEL** *tupper-sex* langile
ohia:

“11 urteko semea daukat. Klasean bera da telefono mugikorra ez duen ia bakarra, eta esan didate 12 urterekin amore eman beharko dudala, WhatsApp taldeak erabiltzen dituztelako lanak egiteko. Nire ustez, pornoa ez da berez arazoa, baizik eta haurren sentiberatasuna babestu behar dugula. Azaldu diot internet helduentzat dela eta haurrek gurasoekin batera erabili behar dutela. Gogoratu diot behin biolentzia handiko bideo bat agertu zitzaiola ezustekoan, eta mindu zela. Ez nau kezkatzen umeak pornoa ikustea noizbehinka lagunekin; esperientzia dibertigarri eta kitzikatzailea iruditzen zait. Ez dudana nahi da sarbide muga-gabea izatea internetek erakutsi nahi dion porno guztira.

Oraindik ez dugu gai horri buruz hitz egin, ez da atera, baina azaldu nahi diot filmak direla, profesionalek egiten dituztela, ez duela espero behar errealitatea halakoa izatea, baizik eta bere gorputza eta bikotekidearena entzun behar dituela. Azalduko nioke, halaber, pornoaren munduan kontrol gutxi eta gehiegikeria asko dagoela. Hitz egin dugu interneten ezezagunekin txateatzeari buruz: nire esperientzia onak eta txarrak azaldu dizkiot, eta segurtasunez txateatzeko gakoak eman dizkiot. Argazki eta bideo sexualak bidaltzeari buruz ere hitz egin nahi diot laster: mutila denez, esan nahi diot ez bidaltzeko eskatu ez dioten ezer (*foto-polla* delakoak), eta norbaitek bere intimitatea eta konfiantza urratzen badu, argi izan dezala ez dela bere errua izan; eduki hori baimenik gabe partekatu dutenek sentitu behar dutela lotsa”. ●

MELVIN PICÓN
GUATEMALAKO JATORRIZKO HERRIEN LURREN DEFENTSAN

“Proiektuak geldiarazi ditugu, komunitateak zortzi urtez egon direlako erresistentzian”



Melvin Picón (Coban, Guatemala, 1979) maia q'eqchi' komunitatekoa da, eta Guatemala iparraldeko Alta Verapaz departamendutik etorri da Euskal Herrira, Mugarik Gabe gobernuz kanpoko erakundearekin elkarlanean. Jatorrizko herrien defentsarako hamaika elkarte eta borrokatan ibilitakoa da, eta ASECSAren proiektu agroekologikoak sustatzen dabil egun, besteak beste. Argitu digu bere egiteko nagusia eta jardun politikoa bideratuta daudela lurralde historikoen gaineko eskubideak aldarrikatzera. Megaproiektuen aurrean egiten duten borrokari buruz galdetu diogu.

 LEIRE ARTOLA ARIN  ENERITZ ARZALLUS / ARGIA CC BY-SA

Hamarkadak daramatzazue lurren defentsan, eta multinazionalen aurrean komunitateen kontsultarako eskubidea aldarrikatzen, besteak beste. Zein da lorpenak izateko borroka modurik eraginkorrena?

Eraginkorrena hainbat estrategia uzartzea da. Estrategia nagusia da lurraldearen antolatze eta erresistentzarako gaitasuna: komunitateak antolatuta badaude eta mobilizatzen

badira proiektu estraktiboa edo hidroelektrikoa edo dena delakoa inposatu ez dadin, gero datorren guztiaren oinarria izango da. Eta baita errepresioaren, kriminalizazioaren eta jazarpen penalaren aurrean –normalean lurraldea defendatzeko borrokan egoten direnak– dagoen erreakzionatzeko gaitasuna ere. Badaude mekanismoak gatazkak auzitegiara bideratzeko ere, Guatemalan zein nazioartean. Egoera pila bat dau-

de. Auzibideak komunitateetan hasten dira, eta harremanak ehuntzen dira bertako antolakunde sozialekin edota espezializatuekin, hala nola konpromiso soziala duten abokatu bufeteekin. Nazioartean, esaterako, Mugarik Gabe bezalako erakundeekin ditugu harremanak, laguntzen digutenak ikerketak egiten eta kasuak dokumentatzen. Bartzuetan, legezko eskabide batzuek funtzionatzen dute.

Adibidez?

Kasu batean Munduko Bankura jo genuen, nazioarteko lan sare baten bidez, eta ahalbidetu zuen proiektu hidroelektriko baten finantzaketa bertan behera uztea. Baina antolaketa zuen oinarritzat, lanketa eginda geneukan herrialdean, eta gero zabaldu genuen lana nazioartera. Kasu horretan arrakasta izan genuen eta proiektua geldiarazi, izugarrizko lana egin zelako Munduko Bankuari eta Europako Garapenerako Bankuei eskatzeko inbertsio funtsean zuten dirua erretiratzeko.

Beraz, garaipenak izan dituzue.

Bai! Baina Guatemalan ez daude babesten gaituzten legeak. Guk, adibidez, badauzkagu sententziak, Guatemalako Gorte Konstituzionalekoak, agintzen dutenak jatorrizko herrien kontsulta-



rako eskubidea erreparatzeko, baina agintzen da multinazionalen proiektuak jada jarrita dauden lurraldeetan. Adibidez, Renace zentral hidroelektrikoaren kasua dago, Florentino Pérezi [Real Madril kirol klubeko presidentea] lotutako ACS enpresa transnazional espainolak eraikitako eraikuntza hidroelektrikoa dena: lurraldean instalatuta dago, eta gorteak agindu du kontsultarako eskubidea erreparatzeko, baina ez du esan instalazioak geldiarazteko kontsulta egin bitartean; kontraesankorra da.

Aipatu duzu kriminalizazioa jasaten duzuela lurren defentsa egiteagatik. Nola egiten diozue aurre etengabeko jazarpen horri?

Enpresen eta estatuaren estrategia da hori. Erresistentzia dagoela eta proiektu baten inposizioak kontraktasuna duela ikusten dutenean, beti erabiltzen dute bide penala, giza eskubideen edota eskubide komunitarioen defendatzaileak kriminalizatzeko. Gu saiatzen gara lana egiten komunitatearen babesa mantentzeko, baina komunitate bereko 40-60 lagun kriminalizatuta daudenean, zaila da guztiak defendatzea. Lehenbizi,

“Kriminalizatua izateko arriskua txikitzeko modu bakarra da kolektibitatea eta komunitatea, oso erraza baita bakarka eraso egitea”



estrategia da kriminalizazioa, judizializazioa edo eraso jasateko arriskua txikitzea.

Nola gutxitzen da arriskua?

Kolektibitatearekin, komunitatearekin. Horixe da modu bakarra, zeren pertsona bat oso ikusgarria izaten hasten denean, oso erraza baita bakarka eraso egitea.

Baina, aldi berean, borroka horretan beharrezkoak dira pertsona erreferenteak, ezta?

Erreferenteak bai, baina ez erabakigarriak. Zeren soilik borroka ordezkatzeko

baitute, eta ez dute erabakirik hartzen ez borrokari ez taldearen formari buruz. Gainerakoa asanblada bidez egiten da.

Lan egin duzu aholkulari tekniko-politiko gisa, nekazaritza gatazkei aterabidea ematen q'eqchi' eta poqomchi komunitateetan. Nola egiten da lan gatazka horiek konpontzen, eta batik bat, nola egiten da lan latifundistekin eta zer harreman duzue eurekin?

Latifundistekin ez dugu harremanik, liskarra baizik [barrez]. Nekazaritza gatazka batean oinarritukoena da ikerketa eta informazio nahikoa izatea, frogatzeko irregulartasunak daudela latifundioetan. Beti daude irregulartasunak, nahiz eta eurek ziurtatu erabat legezkoa dela, jabetza propietatean izena emanda dagoela, eta beste. Normalean hau topatzen dugu: latifundistak esaten du 100 hektarea dituela jabetzan, baina azterketa egiten dugunean konturatzen gara 200-300 hektarea dituela bere esku, legez dagozkionak baino gehiago. Bitartekaritzari dagokionez, oso zaila da lur-jabeekin adostasunera iristea.

Guatemalan bazeuden gatazkek konpontzeko erdibideko puntuak bilatzen

zituen mekanismo batzuk, 1960-1996 arteko gerraren osteko Bake Akordioetan jaso zirenak. Liskarrak gehienetan zerikusia dauka latifundistaren eta komunitateko kideen arteko lan harremanarekin. Kasu horretan argi dago: lan betebeharrak hautsi baditu, bitartekaritzaren helburua da latifundistak laborariari konpentsaziorako lan-prestazioak lurren bidez ematea. Latifundistak komunitateen esku utzi behar izan du lur osoa edo zati bat kasu askotan, bitartekaritza horretan arrakasta izan ohi dugu.

Beste kasu batzuetan, ikerketak eta frogak baditugu, estatuak ere esku hartu izan du txostenen bidez ebatzita irregularitasunak daudela lur horietan, eta estatuak komunitateei itzuli izan dizkie lur horiek. Baina hori egiteko aukera genuen duela bost urte arte. Arazoa da egungo gobernuak desegin zuela Bake Akordioak betearazteaz arduratzen zen instituzio oro. Horietako bat zen nekazaritza auziena, gatazka gehien kudeatzen zituena eta soluziorako mekanismoak bilatzen zituena. Egun ez da existitzen.

Eta nola egiten duzue lan orain mekanismo horiek gabe?

Orain dauzkagun mekanismo bakarrak judizialak dira. Eskabidea egin, eta ikerketa eta adituen txosten bidez frogatu lur-jabeen terrenoetan irregularitasunak daudela eta, beraz, ezin dela inol bertatik bota edo deliturik egin. Horretan gabiltza orain, epaiketetan frogak aurkezten testigu gisa. Halere, prozesu judiziala luzeagoa eta neketsuagoa da, eta kriminalizazioa pairatzeko arrisku-tsuagoa, epaiketean adierazi duzuna zure aurka erabiltzea errazagoa baita.

Euskal Herrian lurren defentsa indarra hartzen ari da, megaproiektuen areagotzearen ondorioz. Zure esperientziatik, zein bidetatik eman behar zaio soluzioa?

Zerikusi handia du antolakuntza mailarekin eta erresistentziarako ekintzekin. Guztiek daukagu erresistentziarako eskubidea. Guk arrakasta izan dugu proiektuak geldiarazten, komunitateak antolatuta daudelako eta zazpi-zortzi urtez egon direlako proiektu hori ez jartzeko gogor egiten. Kostuekin, noski. Santa Ritako [Alta Verapaz] zentral hidroelektrikoa, esaterako, bertan behera utzi genuen, baina zazpi urtez egon ginen erresistentzian, lurraldearen erabateko kontrola hartuta enpresa sartu



“Kontsumoaren kultura da Hego Globala izorratuta mantentzen duena, gero eta gehiago behar duzelako”



ez zedin, eta kostuak izan zituen: 30 kriminalizatu baino gehiago, zortzi hildako baino gehiago... Beste kasu batzuetan kostuak txikiagoak izan dira, komunitatearen antolaketa mailak ahalbidetu duelako errepresiorik ez egotea.

Gailentzen ari den diskurtsoa da energia krisiaren aurrean soluzioa energia berriztagarriak direla. Nola eragiten die ideologia horrek Guatemalako jatorrizko herriei?

Denok gaude aterki neoliberal eta kapitalistaren pean. Energia berriztagarriei edo energia berdeei buruz hitz egitearen arazoa eskalak dira. Eskalak megaindustrialak eta merkantilistak dira, inoiz ez du funtzio soziala izango. Oso berriztagarria eta oso berdea izanda ere, amaituko dugu jendearen lur eremua

inbaditzen, bizi kalitatea kaltetzen, eta ekosistemak suntsitzen. Eolikoek hazten jarraituko dute, logika merkantilista delako. Logika soziala izango balute, helburua litzateke eremu jakin baten energia eskaria asetzea.

Gurekin berbera pasatzen da, esaten digute energia garbiagorantz goazela zentral hidroelektrikoekin. Baina gure behar sozialak asetzeko adina hidroelektriko eraikiko dituzte soilik? Ez, ehunka egiten ari dira. Ikusi Cahabon ibaiko kasua: sei zentral eraiki dituzte, eta une honetan herrialdean gehien sortzen dutenak dira, baina energia horrek ez ditu bertako komunitateetako beharrak asetzen, ez daudelako ezta konektatuta ere; ez dute argindarrik. Zergatik? Merkatuarentzat delako. Eta kontsumo merkatua da ordaindu dezakeena; normalean, inguruko enpresa handiekin –meatzaritzarena, palma afrikarrarena– konektatuta daude, baita El Salvador, Honduras edota Mexiko hegoaldearekin ere. Toki guztietan dago logika bera.

Auto elektrikoak ekoizteko litioarekin ere, berdin. Gasolinazko auto guztiak elektrikoetara aldatzeko, eskala industrial erraldoi horiek mantentzeko, zer? Estraktiboa da dena.

Zuek hemen garraio sistema publiko oso onak izateko abantaila duzue, aldatu behar dena kultura da. Kontsumoaren kultura da Hego Globala izorratuta mantentzen duena, gero eta gehiago behar duzelako. ●

“ ”

Esklabotzaren indarkeria funtsezkoa izan zen kapitalismoaren gorakadan

Marcus Rediker

Marcus Rediker historialari estatubatuarrak kapitalismoaren aurkako erresistentzien hasiera arakatu du, marinelen eta pirateriaren historiara iritsi arte.

IRENE G. RUBIO - PABLO ELORDUY / EL SALTO ELVIRA MEGÁS

Marcus Redikerrek (Owensboro, Kentucky, 1951) dio esklabo-ontzien bidaiak eraldatu egiten zuela bidaia hori egiten zuena. Marine-lak, jatorria edozein izanik ere, "zuri" bihurtzen ziren ibilbidean zehar, eta indarkeria erabiltzeko ahalmena lortzen zuten, beltzen kontra erabili ere: bahiketaren, mehatxuen, torturen, bortxaketaren eta minaren bidez esklabo bihurtuta. Rediker ez da eraldaketa hori egiaztatze- ra mugatu, areago, itsasoko harreman sozialek mundua nola aldatu duten ikertu nahi izan du bere saiakeretan. Eraldaketa suntsitzailea zen, baina aldaketa kulturale- tan, erresistentzietan eta matxinadak gertatzen zirenean askotariko pertsonen artean zeuden aliantzetan ere arakatu nahi izan du, kapitalismo modernoaren sorrerarekin batera zetorren izuaren tes- tuinguru orokorraren barruan.

Ikerketa horietatik liburu batzuk sortu dira, azkenaldian Espainiako Estatuan gaztelaniara itzuli eta argitaratu direnak.

Tartean daude *La Hydra de la revolución* (Iraultzaren hidra, Traficantes de Sueños, 2022), lau eskutara idatzia Peter Line- baughekin, eta berriena, *Villanos de todas las naciones* (Nazio guztietako bilauak, Traficantes de Sueños, 2023); historia unibertsalerako sarrera bat dira, ozea- noetako lana, bizitza eta heriotzaren bidez kontaktua. Esparru horrek, estatu nazioen ikuspegi zorrotzetik irtetea ahal- bidetzen dio Redikerri, historia behetik sakontzeko, eta E.P. Thompson eta Eric Hobsbawmekin edo Midnight Notes Col- lective mugimenduko Linebaugh eta Sil- via Federici lankideekin partekatzen du historiara hurbiltzeko modu hori.

Zer esan nahi du "historia behetik" ikertzeak?

Historiari heltzeko, langile xeheak ja- rri behar dira erdigunean. Liburuetatik kanpo geratzen dira, ia beti goitik konta- tzen baitute historia. Errege eta erregi- nak, presidentek eta, oro har, gizon zuri

handiak ageri dira. Behetik begiratuta, historiak ikuspegi demokratikoagoa eta inklusiboagoa hartzen du, mundu guz- tiak kontatzen baitu. Langileak zentroan jartzen dituzu: haien ahotsak berreskura- tzen saiatzen zara, eta batez ere, historia- ren sorrera nola moldatu zuten erakutsi dezakezu. Batzuetan historiaren bilakae- ra aldatzeko boterea izan zuten, bereziki erresistentziaren bidez.

Nola ikertzen da historia behetik? Jatorri apaleko pertsonen erregistro gutxi dago.

Erronka handia da. Nola lortzen dira eu- ren inguruko dokumenturik utzi ez zituz- ten pertsonen buruzko iturriak? Oso sor- tzailea izan behar du. Lehenik eta behin, eliteek sortutako dokumentuak hartu eta kontrako norabidean irakurri behar dira lerro artean, batzuetan dokumentu ho- rien sortzaileek azaldu nahi ez zituzten sekretuak azal ditzaten. Historia behetik egin nahi baduzu, gizarteak pobreei bu-

ruzko dokumentazioa nola egiten zuen ulertu behar duzu.

La hidra de la revolución lanean kapitalismoaren jatorriaren historia kontatzen duzu pertsona pobreen ikuspegitik. Kapitalismoaren jatorriaz ikerketa gutxi zegoen ikuspegi horretatik?

Kapitalismoaren jatorriari buruzko ikerketa asko daude, baina kapitalismo eraiki zuten pertsonak kanpoan uzteko joera dute. Historia ekonomikoa aztertzen baduzu, pentsa dezakezu merkantziak berez mugitzen direla munduan zehar, ez dagoela eskulanik tartean... Peter Linebaugh eta biok liburuan erakutsi genuen proiektu zabal eta odoltsu hori –kapitalismo global berriaren eraikuntza– goitik nola ikusten zen, Herkulesen ikuspuntutik, eta behetik nola ikusten zen, Herkulesek behin eta berriz buruak mozten zizkion hidraren ikuspegitik: bat mozten zuenean, beste bi buru hazten ziren haren ordean.

Konturatu ginen marinela, esklaboak, era guztietako plebeioak, langileak, aldi baterako morroiak, dendariak, prostitutak... azken batean, pobreenak, funtsezkoak izan zirela kapitalismoaren eraikuntzaren drama handian. Eta eutsi egin ziotela. Hau oso garrantzitsua da: ez zituzten goiko aginduakitsu-itsuan jarraitu, defendatu egin ziren, borrokatu ziren. Matxinadak, altxamenduak... batzuetan iraultzaren bat ere bai.

Buru anitzeko hidra, Herkulesek borrokatzen zuena, XVII. mendean Francis Baconek eta beste egile batzuek matxinoak deabruzeko erabili zuten irudi mitologikoa da. Zergatik uste duzu aukeratu zutela figura hori?

Garrantzitsuagoa da Herkulesen figura aukeratzea, botere handiaren figura. Herkulesek hilezkortasuna lortzeko egin zituen hamabi lanak. Beraz, boteretsuek Herkules bezala ikusten zuten beren burua. "Lan ikaragarria dugu sistema ekonomikoa berria eraikitzeko. Eta nor jaritzen da gure bidean? Nork zailtzen digu hori lortzea?", zioten. Mito zaharra erabiltzen dute etengabe beren proiektua deskribatzeko.

Hidraren buru bakoitzak botereak arriskutsutzat jotzen duen talde sozial bat irudikatzen du.

Guretzat, hidraren buru nagusiak, batez ere, esklabo bihurtutako afrikarrak ziren, haien lan-indarra gizakien salerosketa-

ren bidez garraiatzen baitzen mendebaldeko Afrikatik Ameriketako plantazioetara. Beren lanak ekonomia kapitalista globala bultzatu zuen bi mendetan barrena. Hidraren buru nagusia dira.

Beste buruetako bat, ia garrantzi berekoa, marinelek osatzen dute. Erabakigarriak dira, asko mugitzen direlako eta erresistentzia propioa garatzen dutelako. Hirugarren taldea plebeioak dira, herri-lurrak lantzen dituen jende arrunta. Eta ez gara Europari buruz bakarrik ari: jende askok uste du ondare komunak Europan bakarrik existitzen zirela, baina Afrika mendebaldean ere baziren plebeioak herri-lurrak lantzen. Kapitalismoaren proiektu historikoetako bat pertsona horiek herri lurretatik ateratzea izan da, jabetza kentzeko: hesiek kanporatu zituzten, eta soldatapeko lehen proletariotza bihurtu ziren.

“ ”

Ez zituzten goiko aginduakitsu-itsuan jarraitu, defendatu egin ziren, borroka egin zuten. Matxinadak, altxamenduak...

Posible al da hidraz gain beste izen bat ematea?

"Proletariotza" terminoa erabiltzen dugu langile klasearen ordean, eta terminoaren erromatar zentzuan erabiltzen dugu. Antzinako Erroman, proletarioa jabetzarik ez zuena zen, klase sozial apalena; zehazki, soldaduak erreproduzitura estatuari zerbitzatu zioten emakumez ari ziren. Langileen munduaren erretratu bat egin nahi genuen –soldatapekoak zein soldatapekoak ez direnak–. Horrek emakumeak barne hartuko lituzke, baina baita esklaboak ere, askotan lanaren historiatik kanpo geratzen baitira soldata baten truke lan egiten ez zutelako.

Lanaren historian langile klase zuria aipatzen da sarri. Baina nolako izen proletario hura?

Azken 300 urteetan ia historia guztiak estatua nazioaren ikuspuntutik idatzita daude, eta gehienek lorpenak goraiatzen dituzte. Marinela oso gutxitan sartzen

dira narratiba nazionala, marjinalizat jotzen dira. Marinela ikertzen hasi nintzenean, ikusi nuen askok ez zituztela lanaren historiaren parte gisa hartzen, ez baitzuten merkantziarik ekoizten eta estatu nazioen esparrutik kanpo egiten zuten lan. Baina funtsezkoak dira sistema kapitalista globalerako!

XIX. mendean, industrializazioarekin batera, langile klasearen historia dauka, eta esparru horretatik kanpo dauden beste pertsonak ez ikustea dakar horrek. Zentzu batean, gure helburua langileriaren definizio berri bat sortzea da, eta lanaren historia uste genuena baino zaharragoa dela erakustea. Atlantikoko proletariotza horrek gure modernitatearen parte diren gauza asko asmatu zituen, greba adibidez.

Nola izan zen hori?

1768an Londresko marinelei soldata murriztu zieten. Zer egingo dute? Itsasontzietara hurbildu eta belak jasotzen dituzte itsasontziak irten ez daitezen. Ingelese, itsas hizkuntzan, bela bat jasotzea, *to strike* deitzen da, bela jotzea. Ontziak ez dira mugitzen. Kapitala ez da pilatzen. Eta langileria botere mota berri bat bihurtzen da. Itsas proletariotza hori bandera gorriaren sortzaile ere bada, mundu osoko mugimendu sozialista eta komunisten ikur bihurtu dena. Zer gertatzen zen bataila baten erdian bandera gorria altxatzen bazenuen? Esan nahi zuen: "Ez dugu amore emango, hil arte borrokatuko dugu". Piratek beren banderetatik bihurtu zuten, eta Europako langile mugimenduek sinbolo gisa hartu zuten azkenean.

Eta eskulan esklabo ere proletariotza horren parte da.

Bere zutabea da: azukrea munduko historiaren oinarriko produktu garrantzitsuenetako bat izan zen. Karibeko eta Brasilgo azukre sailak horrorearen agertoki ia imajinaezinak ziren, jendea hil arte lan egin arazten zuten, literalki. Abolizionistek lelo hau bururatu zitzaion: "Azukrea odolarekin egiten da", afrikar langileen odolarekin.

Piraten irudi erromantikora ohituta gaude, matxino eta bilau. Baina *Villanos de todas las naciones* liburuan interpretazio politiko bat egin duzu.

Pirateriaren urrezko aroan milaka itsasontzi harrapatu ziren eta horrek krisia sortu zuen munduko merkataritzan. Eten zuten gauzetako bat esklaboen saleros-



keta izan zen. Marinel arrunt asko pirata bihurtu ziren eta marra bat zeharkatu zuten: bazekiten urkatuak izateko aukera asko zituztela harrapatuz gero. Galdera bat egin nion neure buruari: zergatik zeuden prest? Marinel arrunten bizimodu oso gogorra zen, janari txarrarekin, soldata baxuekin, kapitain oso biolentoeekin... Askok esango zuten: "Bizi gaitezen aske, aldi baterako bada ere". Esaldi bat zuten hori deskribatzeko: "Bizitza zorionsua eta laburra".

Piratek mundu mailako krisia sortu zuten, eta haiek sarraskitzeko kanpaina hasi zuten menperatzaileek, ehunka urkatu zituzten. Beren gorputzak katez zintzilikatzen zituzten eta beleez begigloboak ziztatzan zizkieten. Portuko sarreran jartzen zituzten, edozein marinelek ikus zezan: "Hau da piratekin egiten duguna. Hau da zurekin egingo duguna. Gupidagabeak gara ". Eta gupidagabeak izan ziren. Gerra bat dago pirateriaren inguruan, eta klase gerra moduko bat da.

Beste ordena sozial baten izenean borrokatu zirela ere diozu. Nola deskribatuko zenuke ordena hori?

Zerbait erabat desberdina egin zuten: ka-

“ ”

***Karibe eta Brasilgo
azukre sailak
horrorearen agertoki
ia imajinaezinak
ziren, jendea hil arte
lan eginarazten zuten,
literalki***

pitaina demokratikoki aukeratzen zuten; artikulua edo itsasontziaren arauak ere sortu zituzten, konstituzio txiki bat; kontramaisu postua sortu zuten –tripulazioan konfiantzarik handiena zuen kidea–, herriko tribunoa zen eta kapitaina zaintzen zuen, eman zitzaion aginpidea gainditzen ez zuela ziurtatzeko; gainera, kapitaina kargutik kentzeko eskubidea gorde zuten... Era berean, altxorra denen artean berdin banatzen zuten; gizarte segurantza sistema bat ere sortu zuten.

Non ikasi zuten hori?

Lan egiten zuten itsasontzien beheko estalkian ikasiak zituzten. Bestela esanda, joera demokratiko eta berdintasunezko horiek beti egon ziren hor, baina botereak zapaldu egin zituen. Behin beren ontzia antolatzeke ahalmena izan zutenean, ideia horiek sortu ziren.

Haitiko iraultzak esklabotzan eta piraterian izan zuen eraginaz idatzi duzu. Nola aldatu zuen horrek mundua, Atlantikoan behintzat?

Nire ustez, Haitiko iraultza esklabotzaren amaieraren hasiera izan zen. Iraultzak esklabotza garaitzeko itxaropena eman zien mendebaldeko hemisferio osoko esklabo bihurtutako pertsoneri. Baina horrek ez zuen esan nahi egiteko erraza zenik. Baina itxaropena zegoen, jendeak ikus zezakeen egoera hori buka zitekeela. Eta pena izugarria da gertaera hori alde batera uztea historia liburuek, jendeak Frantziako Iraultzaz bakarrik hitz egin izan du. Haitiko iraultza askoz erradikalagoa izan zen, eta, zenbait alderditan, askoz esanguratsuagoa. ●



ZEIN BIZITZA ERDIGUNEAN?



LETICIA URRETABIZKAIA GIL ETA
JUNKAL ARRUTI TENA
AGROEKOLOGIA EDO HERIOTZA

Ekofeminismoak ekologismoa eta feminismoa artikulatzen dituen begirada eta borroka proposatzen ditu. Horrek irekiera interesgarria dakar, ekofeminismoaren garapenaren zati handi bat ardatz izan duena. Hala ere, irekitasun horrek erronkak eta konplexutasunak ere zabaltzen ditu, eta uste dugu horietan sakontzea beharrezkoa dela ekofeminismoaren ahalmen eraldatzailea zabaltzeko. Horregatik, ekofeminismoan egon daitezkeen pribilegioak eta gerta daitezkeen absentiak eta zapalkuntzak aipatzera gatoz.

Alde batetik, garrantzitsua iruditzen zaigu pertsonen eta herrien arteko pribilegioak kontuan hartzea. Ildo horretan, ekofeminismoak bere egiten ditu emakumeek* bizitzaren eta lurraldeen alde egiten dituzten borrokek, izan sorgin, indigena, nekazari, hindu, latino, migratu edo euskaldun. Hala ere, Yuderkeys Espinosak ulertzen laguntzen digunez, emakume* horiei eta haien lurraldeei eragiten dieten modernitate kapitalista, arrazista eta kolonialarekin zerikusia duten baldintza historiko geopolitikoak modu argiago eta sendoagoan txertatzea falta da. Ezin dugu ahaztu ekofeminismoa modernitate horren barruan sortu zela eta, beraz, kritikatu nahi duen gauza bera egin dezakeela. Eta, ezin ukatu, ekofeminista gehienak Europako zuriak edo haien ondorengoak garela Abya Yalan, eta leku pribilegiatu horretatik



analisi partzialak, folklorizatuak, esentzializatuak edota testuingurutik kanpoak egiteko joera dugula. Hori saihesteko, proposamena zera da: emakume* eta herri borrokalari gisa batzen gaituenaz gain, zapalduak eta pribilegiatuak izateak bereizten gaituena begiratzea, gure erantzukizuna hartu ahal izateko.

Bestalde, uste dugu pertsonen eta gainerako izaki sentitzaileen (sentitzeko gaitasuna dutenen) arteko pribilegioetan ardura hartu behar dugula. Bizitza

erdigunean jarri nahi badugu, begirada zabaldu eta animalia guztien bizitzak kontuan hartu behar ditugu. Gizakiok guztiaren erdigune garen ikuspegi antropozentrikotik sentsozentrikora igarotzea, non gizakien bizitzak ez dauden gainerako animalien gaitetik, eta helburua denentzako bizitza ona lortzea den, animalia esplotaziorik gabe eta espeziean oinarritutako zapalkuntzarik gabe (antiespezismoa). Pertsonen arteko zaintza negoziatzea ezin daitezkeen bezala, zaindu ditzagun beste espezieak (behiak, ardiak eta txerriak, besteak beste), haien bizitzari etekina ateratzeko helbururik gabe. Bide horretan, guztion artean (baserritarrek, landako eta hiriko jendea, aktibistak, eta abar) inoren bizitza ustiatzen ez dituzten proposamenak asmatu eta praktikan jarri behar ditugu, agroekologia antiespezista, esaterako.

Laburbilduz, ekofeminismoaren ahalmen eraldatzailea areagotzeko, gure pribilegio individual eta kolektiboen ondorioez jabetzea proposatzen dugu, erreproduzitzen ez jarraitzeko. Horretarako, lagungarri izan dakiguke beste proposamen eraldatzaile batzuekin elkarriketa eta kutsatzeetan sakontzea, hala nola antiarrazakeriarekin, feminismo dekolonialarekin eta antiespezismoarekin, eta, aldi berean, interseksionalitatea erdigunean jartzea pribilegio eta zapalkuntzen arteko interkonexioetan sakontzeko. ●

A ZE FAUNA!

BASOMUTILAK HIL ZITUENA



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Horia eta beltza da arrabio arrunta. Kolorazio aposematikoa dela esan ohi da eta ez da kasualitatea. Kolore deigarri horiek badutelako euren funtzioa. Bere burua babesteko modu bat da, “erne! Pozoia dut-eta!” esanez bezala. Eta noski, ezauzgarri horri gizakiak are indar handiago eman dio. Arrabioa arriskutsua dela transmititu baita belaunaldi belaunaldi, eta horiek egi bihurtu nahian-edo, badira hainbat kontakizun eta istorio arrabioari lotuak.

Egiatik, ordea, zati txiki bat baizik ez dute bere pozoia buruzko aipamenek: Arrabioak badu likido erresumingarri zuri bat, animalia baten hura jateko saiakera egingo balu gorputzean zehar zabalduak dituen guruinetatik askatuko lukeena. Gizakiak ere tentuz ibili behar du, arrabioa hartu ostean eskuak begietara eramango balitu, litekeena baita azkura sortzea. Hortaz, basoan hura topatuz gero, bere bidean bakean uztea izango da onena. Hura behatu, bere edertasunaz gozatu eta errespetuz joaten uzteko.

Alabaina, litekeena da zuen herrian edo inguruan arrabioaren pozoia buruzko istorio edo kondaira beldurgarriren bat baino gehiago entzun izana. Askok baitira! Urumea bailaran bada bat, esaterako, oso zabaldua dagoena: basomutilak akabatu zituen arrabioarena. Kontakizuna hainbat baserritan entzuna eta jasoa izan da, eta honela dio:

“Bazen behin, basomutil kuadrilla bat, basora lanera joan zena, eta haiek eraman omen zuten, ohi bezala, mutil gazte bat bazkal ordurako janaria pres-



EGOITZ ALKORTA

tatu ziezaien. Basomutilak lanean ari ziren bitartean, mutilak eltzea errekan sartu omen zuen erreko ura hartzeko asmoz, babak egosteko. Bera konturatu ez, ordea, eta urarekin batera hartu omen zuen arrabioa, eta babekin irakiten jarri. Konturaterako arrabioa eta babak ur berotan omen ziren egosten, eta gazteak zer egin ez zekiela, arrabioa hartu eta bota egin omen zuen inor ez konturatzeko moduan. Bueltakoan, basomutilak gose zirela-eta, baba guztiak jan omen zituzten, baina sukaldariak, isil-isilik, ez omen zuen bat bera ere probatu. Hortik gutxira hil omen ziren basomutil guztiak. Sukaldari gaztea izan omen zen bizirik atera zen bakarra. Eta hargatik, esaten da, arrabioak pozoia duela”.

Arrabioa, ikusten den bezala, basoari eta errekarari loturiko animalia da. Eta ez da harritzekoa. Baso hezeak maite ditu, orbel eta hildako enborren artean

ARRABIO ARRUNTA

Salamandra salamandra

TALDEA: Ornoduna / Anfibioa.

NEURRIA: 20 cm gehienez (isatsa barne).

NON BIZI DA? Baso eta erreka inguruetan.

ZER JATEN DU? Ornogabe txikiak.

BABES MAILA: Ez du babesik.

ezkutatzeko; baina erreka eta errekoak ere behar ditu, umatzeko. Beraz, ipuinaren testuingurua, behintzat, ezin egokiagoa dela esan daiteke.

Arrabio arruntak zomorru txikiak jaten ditu eta animalia mantsoa da. Ez du abiadurarik hartu beharrik, bere koloreek ematen baitiote babes. Baina bista-bistan egotea baino, askotan nahia go izaten du enbor zahar edo ustelen azpian ezkutatu. Hargatik, esan ohi da, baso bateko arrabio dentsitatea indikatzaile ona izaten dela basoaren kalitatea neurtzeko.

Kontakizunak gora kontakizunak behera, arrabioa gure basoetako ekosistemaren elementu garrantzitsu bat gehiago da. Egun, Herbeheretan, esaterako, ia desagertu egin da gaixotasun baten ondorioz. Bai basoak, bai arrabioa bera ondo kontserbatzea ezinbestekoa dugu, ez badugu istorio soiletan utzi nahi anfibio honek duen magia berezia. ●

NEGARTIAK ETA MALKOAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Bizitza honetara malkotan jaiotzen garela diote. Ni ez naiz egun hartako ezertaz gogoratzen, baina hala bada arrantza galantak egingo nituen. Landareetan ez da ez arrantza, ez lantu, ez maina, gure jakintza iristen deneraino, ez dugu ezagutzen behintzat... Gure espeziea desagerrarazteko darabagun borrokak nahiko denbora ematen badigu, agian egunen batean jakingo dugu landareen negarren berri.

Formaz bai, formaz negartiak diren zuhaitzak eta zuhaixkak badira. Mutazio edota hibridazioen medioz landare arruntetan ohikoa duten goranzko edo horizontala duten hazkundera beharrean zeharo goitik beherakoa duten adarrak aurkitzen dira. Adar horietatik mentuak hartu eta beste batzuk txertatuz sortzen dira landare negartiak. Zuhaitzetan ale horiek oso deigarriak dira eta batean eta bestean gero eta gehiago ikusten dira. Adar guztiek duten beheranzko hazkundera horrek goitik beherako egitura bereziko zuhaitza eraikitzen du eta negartia esaten zaio; guk, zehatzago, zintzilikarioa edo dilindaria esan beharko genioke.

Formak utzita, malkoak eta negarra, gure irudipenean, gero etorriko dira. Orain neguko loa antolatzen ari dira. Klorofilak eta hostoetan dituzten elikagai apurrak enborreko eta sustraietako biltegiatan jaso; udaberria jantziko duten hosto, kimu eta lore berriak emango dituzten begiak, ninikak edo pipilak ezkatatz babestu; eta abar.

Sasoi berriak ekarriko du malkoen erritua. Malkoa nonahi azalduko da tratu txarrak jasan dituzten landareetan. Batik bat fruta emateko lantzen ditugunetan. Fruta arboletan ere gertatzen da, baina batez ere izaera igokaria dutenetan gertatzen da, mahatsondoan (*Vitis vinifera*) eta kiwian (*Actinidia deliciosa*). Inausketaren ondorioa da malko jarria.



Txori-negarra.

Adarrak ebaki eta izerdi berria bere poz eta alaitasun erabatekoekin bor-bor sustraietatik datorrenean bere bide den hoditeria moztu eta irekia topatzen du. Landarearen berpizkundera dakarren izerdi hazkurritsuak zauritik tantaka erori beste aukerarik ez du. Zauri bakoitza malkotan, negar-malkotan. Errioxan mahastia negarrez ari dela esaten diote. Hostoak ikusi aurretik sasoi berria batorrela adierazten duen negarra.

Udaberria aurrera beste negar bat

etorriko da: txori-negarra. Hala esaten zaio fruitu hezurduna ematen duten arboletan zaurietan sartzen den gaitz bati erantzunez landareak izerdiarekin sortzen duen erretxin itxurako jariakin bati. Laranja-gorri kolorekoa, erdi garden anbarakara, urtzen ari den kandelak sortzen duen jariakinaren antzeko formakoa, sorreran biguna baina gero gogorra. Txorien negar poetikoa.

Negar guztiak zaurietatik sortzen dira, landareetan behintzat... ●

ARABAKO BOILURRA

ARABAKO 40 EKOIZLE, ONDDO PREZIATUA
MERKATURATZEKO KOOPERATIBAN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Pixkanaka jendeak gero eta gehiago ezagutzen du boilurra, baina, gaur egun oraindik, trufa biltzailerak garela esatean txokolatzeko trufa datorkio askori burura”. Ramon Barron Saenz de Lafuente arabarrak urteak daramatza boilur biltzetan. Garai batean kanpoan, modu basatian, jaiotzen ziren boilurrak biltzen zituzten, baina duela hogeita bat urte, onddo hori sortzeko egokiak diren landaketak egiten hasi ziren. Izan ere, zenbait zuhaitz espezieri zuzenean lotua dago boilurra, hala nola arteari, haritzari eta hurritzari. 2006an, Arabako Boilurra kooperatiba sortu zuten zenbait ekoizleren artean.

LURRAZPIKO ALTXORRA

Lurrazpian jaiotzen den onddoa da boilurra. Batez ere kareharrizko lurretan ateratzen da, artearen eta haritzaren sustraien inguruan. “Zuhaitz mota horien landaketak ditugu, zuhaitza bera eta boilurra sinbiotikoak direlako”, azaldu du Barronek. Boilurraren kultura batez ere Kanpezu inguruan egon dela kontatu du, Lizarraldearekin muga egiten duten herrietan. Urte askoan, Kataluniatik jendea etortzen omen zen boilur basatian biltzeta egitera, baina pixkanaka, jarduera profesionalizatzen hasi ziren eskualdean. Txakurrekin egiten dute biltzeta, animalioek gai baitira lurrazpiko boilurrak usaintzeko.

Ekoizten dituzten boilurrak elkarrekin merkaturatzea da kooperatibaren helburu nagusietakoa, baina ez bakarrik: formakuntzari eta jakintzaren partekatzeari begira ere antolatzen dituzte ekimenak urtean zehar. “Boilurrarena gutxi ikertu den alorra da, eta beraz, oso garrantzitsua da guretzat norberaren esperientziak besteekin partekatzea eta



elkarrengandik ikastea”, dio ekoizleak. 40 ekoizle daude egun kooperatiban. Langile bat kontratatzen dute biltzeta garaian, eta urte osorako administrazio langile bat ere badute.

PRODUKTU GALKORRA

Gainontzeko onddoak bezala, boilurra freskoan jateko elikagaia da, eta hori dela-eta, ekoizleak behartuta daude ahalik eta denbora tarte laburrenean merkaturatzera. “Zortzi egun iraun ditzake boilurrak. Bestela, lehortzeko edo izozteko aukera dago”, dio arabarrak. Kooperati-

ban, larunbat eta igandetan egiten dute biltzeta, ekoizle bakoitzak bere lurretan. Ondoren, boilur guztia bateratu, sailkatu, eta astelehenerako, normalean guztia saltzen dute. “Hurbileko jatetxeei eta eraldatzaileei saltzen diegu zati bat, baina hemendik kanpo, mundu mailako handizkako merkaturan ere saltzen dugu beste bat”, adierazi du. Kooperatibaren webgunetik online erosteko aukera ere badago.

Ekoizleak dioenez, pixkanaka boilurraren kultura zabaltzen ari da gurean, nahiz eta beste zenbait herrialdetan duen sona oraindik ez izan. Sona horretan zerikusirik izanen du, ziur aski, boilurraren prezioak ere... Kontuak kontu, etorkizunera begira kezkatuak daudela azaldu du ekoizleak, aldaketa klimatikoak ekoizpenean eragin ditzakeen gorabeherengatik: “Hemen urte hau ona izan da, baina Teruelen, boilurraren lurraldea den horretan, oso txarra izan da, ez duelako ia euririk egin”. ●

PODCASTAK



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Entzun lurrari entzuten dion jendea

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Egonarrria podcast saioaren bigarren denboraldia hasiko da 2024an sartzearekin batera. Eli Pagolak eta Mattin Jauregik bideratuko dute oraingoan ere ikus-entzunezkoa, baina baditu berritasun batzuk eta uste dut interesatuko zaizkizula, irakurle. Egunero ezin go duzu saio berri bat dastatu, baina, udara bitarte, astean behineko maiztasunarekin konformatuko bazara, jarraitu irakurtzen.

Urtarrilaren 10ean, asteazkenarekin, argitaratuko da denboraldi berriko lehen atala argia.eus/multimedia-n. Lurrari entzuten dion jendea izango da protagonista, lurrari kantatzen diona, lurrarekin dantzan ari dena. Badago zer kontatua eta lehen gonbidatua Aitor Aranburu izango da, Behieko proiektu ekologiko txikiko langilea, ARGIAko platora bertaratu dena haragi sintetikoaren industriaren iritsieraz eta honek planteatzen dituen galderez hitz egiteko.

Akaintz Sarasolaren gaztainadia ere eza-gutuko dugu Mattin Jauregiren eskutik edo entzun ahal izango ditugu Ostia kolektiboko Hartzeta Lopez Adan eta Joana Detchart-en ahotik lurraren aldeko borrokan, errepresioaren eta garaipenen inguruko azalpenak.

BI ZATIK OSATUTAKO PUZZLEA

Pil-pilean dauden gaiak ekarriko ditu ikus-entzuleenganaino, ordu-erdi inguruko elkarrizketa bidez, Eli Pagolak. Platoan arituko da bera, eta gai zehatzez mintzatzea ekarriko du lurrari lotutako jendea; beren esperientziatik hitz egitera, baina beti hari bati jarraituz –Aitor Aranbururen kasuan, haragi ekologikoa ekoizten duen Behieko-ren esperientziatik, eredu talka egiten duen haragi sintetikoaren gaia ardatz hartuta, adibidez-. Aldiz, Mattin Jauregik landalana egingo du gehiago. Sukalderaino sartuta ezagutuko ditu hainbat bizipen

Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.

Ongi etorri denei komunitatera!



“Kafe edo garagardo batekin paregabe sartzen delako”.

Zaldibartik Dunixek

“Euskal kazetaritza alternatiboa sustatzen duelako. Bestelako hedabideetan ezkutuan dauden gaien bestelako begirada eskaintzen du: ekologia, euskara, gatazka politikoak, hezkuntza...”

Debatik Marik

“Euskaraz bizi nahi dudalako”.


Tolosatik Axunek

eta proiektu eta esperientzia horietan zentratuko da gehiago, gai jakin batean baino.

Bakoitzak izango du, denboraldi honetan, bere saioa. Bi zatik osatutako puzzlea. Beraz, asteazken batean Jauregiren pilula bat jasoko dugu eta beste batean Pagolarena; nahiz eta ez den beti txandakako maiztasunean funtzionatuko –joango zara zeu, erritmoa ikus-entzuten, irakurle–.

Egunero egin beharreko zerbait dugu elikadura, baina eskubide behar lukeena negozio bilakatua da aspaldi eta iritsi gara nahi izatera janaria erraz, azkar eta merke; dirua beste gauza batzuetan inbertitzeko. Baina ze kostu du horrek gure osasunean eta lurrarenean?

Ikus-entzule, Egonarrria-ren bigarren denboraldi honetan beste elikadura sistema bateranzko bidean erreferentziako pertsona eta proiektuak direnak aurkituko dituzu. ●



Etruriar emakumeak greziarren begietan



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Grezia, K.a. IV. mendea. Hainbat greziar pentsalarik, esaterako, Aristotelesek edo Heraklidesek, etruriarrei buruz idatzi zuten, Italiar penintsularen erdialdean eta iparraldean bizi zen herriari buruzko iritzi negatiboa jasoz. Etruriar emakumeak kritikatu zituzten bereziki, eta Teoponpo historialaria izan zen gordinena.

“Tirreniarren [etruriarren] artean ohitura zen emakumez guztien artean gozatzea; emakumeek gorputza asko zaintzen zuten eta maiz gimnasia egiten zuten gizonekin batera, baina baita haien artean ere; haientzat ez da desohorea erabat biluzik egotea. Gainera, oturuntzetara beren senarrekin nahiz beste edozein gizonekin batera joaten dira, eta nahi dutenaren osasunaren alde egiten dute topa. Askok esaten dute eta itxura ona daukate. Jaiotzen diren haur guztiak hazten dituzte, bakoitzaren aita zein den jakin gabe; haurrek, gero, hezi dituztenen bizimoduari helduko diote, maiz mozkortuz eta emakume guztiekin bat eginez. Tirreniarrentzat ez da lotsagarria jendaurrean [sexu] harremanak izatea”.

Gaur egungo begiradatik, askorentzat laudoriozkoa izan liteke Teoponporen testua, baina harentzat, eta oro har greziarrentzat, etruriar emakumeak txarkeriaren eta immoralitatearen eredu ziren. Aurreko bizpahiru mendetan etruriarrak greziarren etsaiak izan ziren Italiar penintsulan, eta horrek



JUAN MARCH FUNDAZIOA

azaldu dezake greziarren ezinikusia. Baina emakumeekiko jarrerak sustrai sakonagoak zituen. Emakume etruriarren estatusa gizonaen parekoa zen. Jarduera publikoetan parte hartzen zuten eta greziar emakumeek ez zuten askatasuna eta maila soziala zeukaten. Festetara eta oturuntzetara joaten ziren gizonaenekin batera eta alkohola edaten zuten. Esklaboen eta ondasunen jabe izan zitezkeen, ekoizpen jarduerak kudeatu zituzketen, eta haien hilobiak

gizonaenak bezain aberatsak (edo pobreak) ziren. Idazkunek haien ize-nak jasotzen zituzten, Grezian ez bezala. Grezian, eta Erroman ere bai, emakume izengabeek aitaren nahiz senarraren izena hartu behar zuten.

Erromatarrek ezaugarri asko hartu zituzten etruriar kulturatik: gladiadoreen borrokak, botere sinboloak, eredu urbanistikoak... Baina emakumeen estatusari dagokionez, greziarren ereduaren alde egin zuten. ●



WILLIAM TAYLOR/CU BOULDER

Zela mongoliarrek asmatu zuten?

Zaldiak erabiltzeko funtsezkoak diren estribuak eta zelak V. edo VI. mende inguruan Txinan asmatu zirela uste izan da orain arte. Baina Mongoliako Urd Ulaan Unet kobazuloan zela zaharragoa topatu dute, IV. mendekoa. Inguru hartako urki egurrez egin dago, eta, beraz, ez da inportatua. Hala, Erdi Aroko asma-

kizun garrantzitsuenetakoaren jatorria alda dezake aurkituntzak.

Berez, zela hilobi lapurrek aurkitu zuten, baina poliziak arpilatutakoa berreskuratzea lortu du eta, hala, inoizko zelarik zaharrena ikerlarien esku dago, eta ez objektu historikoen merkatu beltzean. ●

DISKOTEKAK

Bidaia bat dantzaleku galduetan zehar

1990eko hamarkadaren erdialdean, Euskal Rock Erradikalaren itzal luzearen eragina oraindik nabaria zenean, Valentziako kostaldean aspaldi musika elektronikoaren eta gaueko bizitzaren historian aro bat markatu zuen fenomeno kulturala –*Ruta del Bakalao* edo *Ruta Destroy* bezala ezaguna izan zena– Euskal Herrira heldu zen. Techno, house eta trance musikarekin lotutako azpikultura horrek diskoteka zaharretan, industria-nabeetan eta espazio alternatiboetan aurkitu zuen bere etxea. Gaur egun horren guztiaren hondarrak baino ez dira geratzen. Hondarrak eta, nostalgiaren indarraz, airean eraikitako gazteluak.

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE  EIDER ITURRIAGA

Erreportaje honetan, dantzarako kultura hark gurean izan zuen eragina eta haren inguruan sortu ziren gatazkak aztergai ditugu, Mugak bienalak antolatu duen *disco-TEKAK*. *Bumping-aren tenpluak Gipuzkoako kostaldean* jardunaldiak aitzaki hartuta.

N-634: ERREPIDE BAT BAINO GEHIAGO

Gipuzkoako kostako errepidetik garmatza autobusak; Ondarroa eta Mutriku artean dagoen Venecia dantzalekutik Itziarren dagoen Txixarroraino. Bidean geldialdia egingo dugu Jazzberriin, Arroabeen. Errepide hau 1990. hamarkadaren erdialdean Euskal He-

rriko *Ruta del Bakalao*-ren arteria nagusia izan zen. Aipatutakoei Hernaniko Young Play, Lakuntzako Universal, Lemoako NON, Gorlizeko Nyx, Bilboko Columbus eta beste hainbat gehitu behar zaizkie. Zerrenda luzea, fenomeno kultural horrek gurean izan zuen arrakastaren seinale. Gaurkoan, baina, ez dago dantzaldirik, ez argi estroboskopikorik, ez parking batek eskaintzen duen eguzkiaren eta ilargiaren arteko trantsizioaren ikuspegirik. Mugak bienalak antolatutako ibilaldian gaude, Bakalao musika bezala izendatu zena-ren Euskal Herriko tenpluetan zehar.

Arkitektura bienala denez, antolatutako ibilbide eta hitzaldien ikuspegia diziplina horrekin lotu dute. Honela,

aisi- eta dantzaleku-arkitekturaren be- bezitasunak aztergai izan dira. David Bestué artistak azaldu du garai bateko optimismoa islatzen duela. Dantzalekuak krisi ekonomikoaren aurreko garaiko positibismoarekin lotuta daudela eta etorkizunari egindako gorespen bat direla aipatu du kataluniarrak. Aretoen diseinuak kontuan hartzen zituen aisiaren behar konkretuak, musika eta dantzarenak, baita harreman soziale- nak ere. Pol Esteve arkitekto eta ar- tistak dantzan egiten duten gorputzen inguruko arkitektura inguratzailea be- zala definitu du.

Geografiaren garrantzia nabarmen- du du, bestalde, María Langaritak. Bere ikerketan Valentziako *Ruta del Baka-*





Txitxarro, Debako Itsaspe auzoan.

lao aztertu badu ere, esandakoa Euskal Herriko kasura aplikatu daiteke: aisi transgresore batek distantzia espaziala beharrezkoa duela. Interesgarriena, arriskutsuena, beti bazterreko guneetan gertatu da. Euskal Herrian, Valentzian bezala, dantzalekuak kostako errepidean ezarri ziren, gehienbat. Hasiera batean hondartzetan pilatzen ziren turistak erakartzeko amua zena, ezkutuan dantzatu, gozatu eta ebadi-tu nahi zutenen babesleku izan ziren. N-634 errepideak bere garai loriatsuak atzean utziak zituen A8 autobide modernoaren mesedetan. Hura zen, Bilbo-Behobia delakoa, Euskal Herria etorkizunarekin lotu behar zuen bidea. Horrela, N-634 errepidean zehar he-

datuta, dantzalekuek bestelako aisia eskaini zuten. Gatazkan zegoen gune bat okupatuta, lurraldea produktibitatearen nagusitasunaren aurrean errebelatzea lortu zuten.

Diskotekak kontrol sozialerako espazioak ere badirela aipatu zuen Fernando Castrok bere solasaldi mamitsuan. Lo egiten ez dutenek beren lan-indarra lapurtzen dutela esaten da eta horregatik jende hau kontrolatu eta diziplinatu beharra dago. Hori dela-eta, katalogazio negatiboak –“zoologizazioa”, Castroren hitzetan– ezartzeko ere erabili ziren espazio hauek. Horrela, dantzalekuak degeneratuentzako kutxa opa-koak bihurtu ziren; jendilajea arrastoon sartuta edukitzeko ontziak.

UNTXIAREN GORDELEKUAN SARTU

Arroabeen, Zestoa eta Zumaia artean, urteak itxita daramatzen ate bat ireki da. Barruan argirik ez, sartu garenon mugikorretatik ateratzen dena ez bada. Sator zulo batean murgildu izanaren sentazioa dugu. Hondakinak, aspaldi biziak izan ziren kolore itzaliak horretan eta zaborra kiloka; hori da aurkitu duguna. Hemen, aspaldi, Jazberri izeneko dantzaleku bat egon zen, non astebururo milaka gazte biltzen zen lan-astearen, edo langabezi-astearen, zakartasuna gaintetik kentzeko. Dantzatzen, lurzorua gogor kolpatzen, lan-munduaren alienazioari ostikoka ariko balira bezala.



Txitxarro, Debako Itsaspe auzoan.



Txitxarro.



Venecia, Ondarroa eta Mutriku artean.

Lewis Carrollen *Alizia Herrialde Miragarrian* liburuan, Aliziak Untxi Zuria jarraitu eta gordelekuan erortzen da. Kontakizunak protagonistaren ezezagunerako trantsizioa irudikatzen du, halako bidaia inizatiko edo eraldatzailea. Ekintza horrek eguneroko errealtatea alde batera uztea eta irudimenezko erresuma batean sartzea sinbolizatzen du. Alana Portero idazleak, *Rave en el País de las Maravillas* testuan, Aliziaren bidaia eta *rave kultura* parez-pare jartzen ditu. Idazle madrildarraren aburuz, dantzalekuetara sartzen zirenak atari bat igarotzen zuten. Han egotik askatu, liluratuta dantzatu eta egunsentian berpizten ziren, pertsona guztiz desberdin bihurtuta.

Gaua ere kontzeptu politiko bat izan daiteke. Gaua ez da soilik pultsio hedonistak askatzeko eremu askea. Horrela, XIX. mendeko lehen diskoteketako publikoa langile mugimenduko kideez osatuta zegoen: anarkistak, komunistak, sindikalistak eta abar. Dantzalekua ez da soilik dantzarako eremua. Subertsio eta kontrakulturarako, sormen eta askapenerako guneak ere badira. Dantzalekua perbertsiorako babesleku ere bada, diskotekek, dantzaren eta gauaren babespean, disziplina kapitalistaren aurka gorputzak berrerotizatzen laguntzen baitute.

Mugak bienalak antolatutako hitzaldietako batean, Fernando Castro filosofoak maisuki azaldu du dantzalekuen funtzio askatzailea. Berarentzat, dantzalekuak iheserako tresna dira, langileen asaldura eta eszitazioari bide emateko espazioak. Musikaren burrunbaz inguratuta, iluntasuna argi-kolpeka apurtzen denean, langilea dantzari bihurtu eta estasi egoeran murgiltzen da. Diskotekak gizarte depresiboaren gaitzen aurkako senda-gaia direla azpimarratu du Castrok, iluntasuna zeharkatzen duten eta kontroletik ihes egitea ahalbidetzen duten itsasargiak.

BITARTEKOEN KOMUNISMOA

Musika horri despolitizatua izatearen etiketa jarri izan zaio. Euskal Herrian, ohikoak ziren musika egiteko moduen aurrean, techno musikatik eratorritako kulturari hedonismoa bultzatu eta gazteria despolitizatzea leporatu zioten. Hitzik gabe –musika mota honetan ia ez baitago abestutako hitzik– zaila zen kutsu politiko bat ematea. Baina



Jazzberri.

situazionistek zioten bezala, gakoa ez zen arte situazionista egitea, baizik eta situazionismoa artea egiteko moduan txertatzea. Horrela ulertu zuen Nicolas Bourriaud artearen historialariak DJ kultura bitartekoen komunismo-kultura bat zela aipatzean.

Marxismoaren arabera, Bourriaud-en esanetan, truke-harreman bat dago zibilizazioak sortutako ekoizpen-tresnekin, eta technoak produktu hauek hartu eta musika egiteko erabili zituen. Ideia honekin lotuta, Aryel Kirou kazetariak *Techno rebelle* (Denoël, 2002) lanean benetako iraultzaileak, denen mespretxuaren aurrean, makinak musikatu eta gainditzeko erabiltzen dituztenak direla defendatu zuen. Technoa musika horizontala zen, musikari-entzule binomioarekin apurtzeaz gain, musika egiteko modua guztiz askatu zuena. Erritmokaxek soinuak biltegitatu eta transmititzeko aukera ematen zuten. Copy/paste tresnak ziren. Technoa punkaz haratago joan zen. Jada ez zen beharrezkoa ezta musika tresna bat izatea ere. Musika sortzeko soilik beste batek aurretik

Dantzalekua perbertsiorako
babesleku ere bada;
diskotekek, dantzaren
eta gauaren babespean,
diziplina kapitalistaren
aurka gorputzak
berrerotizatzen
laguntzen baitute

egindako musika behar zen. Beste abesti batzuen zatiak “sampleatzea” nahikoa zen berriak sortzeko. Horrela, Bourriaud-en ustetan, *continuum* amaigabea ezartzen zen. Ken Ishii musikari japoniarraren arabera, “techno musikaren historia internetenaren antzekoa da. Orain edozeinek konposatu ditzake musika amaigabeak. Musika horiek gero eta gehiago zatitzen dira genero desberdinetan, bakoitzaren nortasunaren arabera. Mundu osoa musika ezberdin eta pertsonalez beteta egongo da, eta horiek inspirazio handiagoa emango dute”.

Baina dantzalekuen kulturari, technoa eta abarrekoiei, beste edozein adierazpen kulturali gertatutakoa gertatu zitzaion: ezinezkoa izan zuela kapitalismoaren eta komertzialtasunaren fagotizaziotik ihes egitea. Gorputzen berrotizazioa beste opresio modu batean bilakatu zen, Pol Esteveren ustetan. Baina ez hori bakarrik. Errepide, aparkaleku eta dantzalekuek gainezka egin eta, masifikazioaren ondorioz, amets hedonista amesgaizto bilakatu zen. Sarrerak eta alkohola saldu beharra zegoen, jen-



Jazzberri.



Skammer, Debako Itsaspe auzoan.

deak kontsumitu behar zuen, eta musika sesioak interes komertzialen menpe egoten hasi ziren. Transgresioa eta esperimentazioa alboratzen hasi ziren DJ izarren gezurrezko argi-distiraren pean, eta musika bilakatu zen bigarren plano batean geratu zen gauza jasangaitz bat.

HAU EZ OMEN ZEN GURE ESTILOA

2000. urteko irailaren 10ean lehegailu batek eztanda egin zuen Itziarren (Gipuzkoa) kokatutako Txitxarro diskotekan. Hamabi egun beranduago kaleratutako komunikatu batean, ETAk bere gain hartu zuen ekintza horren ardura. Talde armatuak atentatua justifikatu zuen lokala Euskal Herrian zehar zabaltzen den narkotrafiko-sare baten “begi garrantzitsua” zelakoan. Lehegailua erdiko zutabe nagusian ezarri eta eraikinaren barnekaldea suntsitu zuen. Perimetrea, baina, zutik mantendu zen.

Bakalao musika bezala ezagutu zenaren hedatzeak talka egin zuen Euskal Herrian oso errotuta zeuden kultur- eta aisi-adierazpenekin. Gune alternatiboetan, gaztetxe edo irrati libreetan, musika estilo honekiko gaitzespina oso orokortua izan zen eta bide luzea eta oztopoz betetakoa egin behar izan du onartua izateko. Txitxaroren aurkako atentatuak inflexio puntu bat suposatu zuen eta bi munduak are gehiago aldentu zituen.

Erromantizazio eta idealizaziotik urrun, onartu beharra dago kultura horrek hedonismo hutsetik asko zuela. Baina, halaber, onartu beharra dago ezkerreko hainbat esparrutik hau guztia ulertezintasunagatik mespretxatu zela

Bienaleko antolatzaileetako batek hiru gatazka puntu aipatu ditu: disko-teketo bezeroen ustezko espainolismoa, droga trafikorako guneak zirela eta gazteria alienatzen zutela, eta kultura horretako kideak *jendaila poligonea* zirela. Lehenengo arrazoiarekin ez dator bat Oiartzungo Itzelan DJ bezala ibilitako Iker Rodriguez Cordero. Bere esanetan Txitxararren mugitzen zen jendea ingurukoa zen, euskalduna gehienbat. Gauza bera gertatuko zen aipatutako Itzela, Jazz Berri edo Venecian. Berak, garai hartako beste hainbat gazteek egin bezala, bogan zegoen musika estilo bat jarraitzen hasi eta horrekin lotutako azpikulturarekin bat egin zuten. Beste arrazoiei dagokienez, ezkerreko espazioetan drogak ere kontsumitzen zirela eztabidaezina da. Alkohola ere litroka, eta horrek alienazioarekin duen harremana ezin daiteke gutxietsi. Gatazka horren arrazoiak eta benetako motibazioak zehaztea, baina, orrialde hauetan leku nahikorik ez duen eztabaida luze eta sakona eskatuko lukete.

BIDAIAREN AMAIERA

«Artistek diskotekak atsegin dituzte hauek itxita daudenean, hutsik. Beti berandu heltzen dira». Hitzok Fernando Castorenak dira. Horrela sentitu gara autobusean gindoazenetako batzuk, be-



Jazzberri.

randu heldu garela. Ezagutu ez dugun iragan baten eta arbuiatu dugun estetika eta kultura baten museifikazio eta exotizazioa egin dugula ibilaldi honekin. Askorentzat, aparkalekuak eta dantzalekuak bete zituzten gazteak “jendaila” ziren, musika politikotik aldendu eta hedonismo huts batean galduta zeudenak. Kaniak, makarrak, zabor apolitikoa bezala estigmatizatu ziren, klasismotik zordun zen begiradarekin.

Erromantizazio eta idealizaziotik urrun, onartu beharra dago kultura horrek hedonismo hutsetik asko zuela. Transgresiotik baino, alienaziotik hurbilago zegoela, ia hasieratik kapitalismoaren dinamikek gurutzatutako

Dantzalekuen kulturari, technoa eta abarrekoiei, beste edozein adierazpen kulturali gertatutakoa gertatu zitzaion: ezinezkoa izan zuen kapitalismoaren eta komertzialtasunaren fagotizaziotik ihes egitea

kultur adierazpena izan baitzen. Baina, halaber, onartu beharra dago kontra-kulturako eta ezkerreko hainbat esparrutik hau guztia ulertezintasunagatik mespretxatu zela. Arrotza zelako, urrun sentitzen zelako. Garaian, askok ez genuen ikusi, ezta ulertu ere egin, azpikultura horren indar politikoa.

Orain hondakinak baino ez dira gertatzen. Hondakinak eta nostalgia. Orain abandonatuta dauden tenplu zaharretatik irten eta aisirako zein arterako bitarteko eta modu berriak imaginatu beharra dago. *Su festak* liburuaren egile Jon Urzelaik aipatu bezala, aisiaren kudeaketa bizitzaren kudeaketarako lehen pausua baita. ●

USURBIL MUSEO IREKIA

Usurbilgo kale eta hormetako ondarea ezagutu nahi duzu?

Astebururo, bisita gidatuak!



650usurbilbizi.eus/agenda

Beste mundu bat posible da!

650
USURBIL
bizi



LIBURUA

Literaturaz gozatzeko gonbidapena



MUNDUA PITZATUTA DAGO BAINA HANTXE GABILTA OINEZ

TESTUA: HARKAITZ CANO
ILUSTRAZIOAK: ISABEL HERGUERA
EREIN, 2023

XABIER ETXANIZ ERLE

Fernando Bernués antzerki zuzendariaren ideia batetik abiatu zen Harkaitz Cano esku artean dugun liburu bitxi eta zoragarri hau idaztera. Neskatxa batek, Oihanak, bere istorioa kontatzen digu: gurasoekin duen bizimodua, amaren heriotza, ondorengo samina, liburutegian lan egiten duen Agatarekin duen harremana, aitarekin berregiten duen bizitza... Askok dira Oihanak kontatzen dizkigun kontuak; koadro batean pintzelkadek edo pintura tantek osatzen duten irudia bezala horrela joango da Cano osatzen Oihanarena.

30 atal laburretan (bizpahiru orrikoak luzeenak) egileak Oihanaren istorioa kontatzen digu, baina, era berean, irakurlearen inguruan sare bat osatzen du, irakurlea, armiarmak euliarekin egiten duen bezala, harrapatuta gera dadin

testuan, testuak kontatzen digun istorioan eta, batik bat, istorioa kontatzeko moduan.

Gertaerak iradokitzen (amaren heriotza narratzean bezala) edo modu poetikoan kontaturik, irakurleak testuaren mezua eraiki behar du bere barnean, esaten denetik at irakurri, kontatzen denetik haratago ikusi. "Batuetan istorio bat kontatzen dizute eta barre egiten duzu. Beste batuetan, istorio berbera kontatzen dizute eta negargura besterik ez duzu sentitzen".

Liburua, gainera, irakurketaren aldeko edo liburuen aldeko aldarria ere bada. "Liburuek ez dizute ezertara derrigortzen, gonbite bat dira"; horretarako, batuetan, literatura unibertsaleko erreferenteak erabilia ere: "Eta postariak: 'Baina, Pablo... Poemak ez dira

idazten dituzuenonak, haien premia dugunonak baizik".

Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilta oinez, horixe omen dio Afrikako esaera zahar batek. Eta munduko gorabehera guztien artean gu gaude aurrera egiten, oinez. Harkaitz Canoren obra honek aurrera egiten laguntzen digu, egoera okerretan ere oinez jarraitzera animatu. Baina horien guztien gainetik Literaturaz (hizki larriz) gozatzera, Canoren literaturaz, Afrikako kulturari eginiko erreferentziekin eta obran aipatzen diren hainbat idazleren aipuekin gozatzera; baita Isabel Herguerak eginko irudiekin hunkitzera eta istorio zoragarri batean barneratzera ere. Horietara eta beste mila lekutara eramango gaitu liburu honek. Literaturaz gozatzeko gonbidapena. ●



MUSIKA

Benetako filigrana



MINNESOTA CHORALE / COURTNEY PERRY

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Euskadiko Orkestrak bat egin du Giza Eskubideen Adierazpen Unibert-salaren 75. urteurreneko ospakizunekin, eta abonu-kontzertu bat eskaini du, Aaron Coplanden *Preamble for a solemn occasion* lanarekin. Lan horrekin ospatu zen, hain zuzen ere, deklarazio horren lehen urteurrena. Oraingo honetan, obra horren diskurtso-bertsioa eman da, Dorleta Urretabizkaiak euskaraz irakurritako testuarekin.

Obra 1949an sortu zen, aipatutako efemeridearentzat hain zuzen ere, eta Euskadiko Orkestraren kontzertu honen abiapuntua izan zen, Juraj Valcuha zuzendari eslovakiarraren batuta bereziarekin.

Bratislavan jaio eta gaur egun Houstongo Orkestraren zuzendari titularra den Valcuha zuzendaritza izan zen kontzertuaren gauzarik azpimarragarriena. Zuzendaritza zorrotza, bikaina, ia

kirurgikoa bere perfekzioagatik. Horrek aukera eman zigun programa osatu zuten bi lanen motibo eta frase bakoitzaz gozatzeko.

Coplanden obra, sei minutu eskasekoa, irmo iritsi zen entzuleengana. Obrak, nahiz eta 74 urte igaro diren konposatu zenetik, ez du freskotasun izpirik galdu. Soinu-ehundurak gardentasunez eta dotoretasunez hautematen diren lana da. Ederra.

Baina, agian, Valcuha zuzendari-tza perfektua nabarmenago geratu zen programaren bigarren obran. Gustav Mahlerren *1. Sinfonia re maiorrean 'Titan'* xehetasunez betetako oparia izan zen. Aipatu bezala, zuzendaria Bratislavan jaio zen, Kalistetik –Mahlerren jaioterritik– 200 kilometrora. Agian xehetasun horrek azaltzen digu zuzendariak duen konpositore bohemiarraren

FITXA

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

ZUZENDARIA: Juraj Valcuha.

NARRATZAILEA: Dorleta Urretabizkaia.

EGITARAUA: Copland eta Mahlerren lanak.

NON: Gasteizko Principal Antzokian.

NOIZ: Abenduaren 15ean.

soinu-munduaren ulermen eta itzulpen perfektua.

Sinfonia erraldoi honen ñabardura guztiak argi eta garbi azaldu zituen zuzendariak. Muturreraino disezionatu zituen. Sinfoniaren mugimendu bakoitzak giroa eta ñabardura egokia adierazi zituen, baina mugimenduetako bat nabarmendu behar badugu, hirugarrena –*Feierlich und gemessen, ohne zu schleppen* (solemnea eta neurritsua, arrastatu gabe)– izango litzateke. Valcuhak motibo bakoitzaz egin zuen transizioa magistrala izan zen. Modu minorrean egindako *Frère Jacques* famatutik, bohemiar melodia goxora, hungariar giroko zirku kutsuko pasarteetatik pasata, dena oso argi zegoen, garbi-garbi, eta oso igarobide dotoreekin.

Benetan zoragarria Valcuhak orkestrarekin egindako lana. Zorionak. ●



Portuko ranpa gehiago komeni

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 UNAI ALBERDI

Ez zait aukerarik sortu orain arte Ondarroako Portuko Ranpara gerturatzeko. Toki berezia zela eta gustatuko zitzaidala esaten zidaten lagunek. Eta azkenean, aitzakia izan dut bertaratzeko Amorante eta Ibil Bedi taldeen kontzertuak zirela-eta.

Inoiz egon ez denarentzat, ohar bi. Izenak berak adierazten du non dagoen aretoa. Portuko eraikin industrial zaharkitu horietako batean, hain justu, aldapa bete eskailera gora. Premisa: *guay*. Bestetik, sartuko zara eta *ranpak* bigarren adiera bat lortzen du: eszena-toki alboan, literalki, skate egiteko pista txiki bat dauka. Irudipena: *guau*. Areatoa herriko jendez eta kanpotarrez lepo bete da musikarien kontzertuak hasi baino dezente lehenago. Ez da zaila izan, txiki-txikia da-eta, baina giro ederra.

Amorantek bere azken laneko kantutak eskaini dizkie entzuleei. Ez du ba-

tere publiko erraza izan, hizketan eta marmarrean aritu dira asko latak zerbezak eta errusiarrak edanean. *Oturuntza* baten moduan hasi du kontzertua jendearen artetik tronpetatxo eskuan. Dantzarako eta kanturako aukera ere izan da. Tekla, pedal, looper eta instrumentu zaharrekin milaka buelta eman ondoren bukatu du kontzertu *autotunearen* beteranoak. Askok ez zuten ezagutzen, eta sorpresa ona eraman dute. *Famau*.

Oholtzara igo dira gero ibilbeditarrak, eguberri-argi artera. Iruñetik kanpoko hirugarren kontzertu eguna duten arren, indar apurrak gorde dituzte zapatu iluntzerako. Gazteenek hartu dute lehen lerroa eta hasierahasieratik kantatu dute ikusleek. Skate pistaren aldean zirenek ere bai. *Goldea* diskoari buelta eman diote hasi eta buka. Entzuleetako batzuk *Xirarena* entzuteko irrikaz, kantuan hasi dira

AMORANTE + IBIL BEDI

NOIZ: Azaroaren 25ean.

NON: Portuko ranpi (Ondarroa).

abesti-artearen. Baina Ametsek aurre-ratu die oraindik ez dela horren txanda. Miceren *Ausardiarik ez* bertsionatu dute, emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunaren karietara, eta *gizon koldarrei* eskaini diete.

Baina komeni den dena denez halako espazioei gorazarre egitea, honek denak segituko du izaten, oasi. Batzuk ez lirateke ausartuko arriskatzen, eta horrexegatik Portuko ranpa gehiago behar dira Euskal Herrian. Agian Ibil Bedi apustu erraza da gisa honetako sala baterako. Baina Amorante bezalako artisten alde ere egin behar da. Entzuleak ohitu egin behar dira ezagutzen eta gustatzen ez zaien musika zuzenean aditzera. Entzule gisa ere tokatzen zaigu gure alea jartzea, eta euskarazko proposamen ez hain ohikoei gure agendetan eta belarrietan tokitxo bat egitea dagokigu. ●



Hitz gezidunak

ORTOGRAFI ZEINUA LOGOTIPO	GURTZA JASOTZEN DUEN IZAKI JANGARTXU, MIZKIN	EZKURRAK (ZUBEROAN)	TENTSIOA NEURTZEKO UNITATE OKELAREN ZAINA	UMEEN GABONETAKO PARKEA ROENTGEN	BEREHALA, LASTER AITONA	TANTOA LISTU EGINEZ	
		UHNAK IGORTZEN DUEN TRESNA NORI ATZIZKIA					
MASAIL KALTZIO KARBURO				APUR, PIXKA ALFABETOKO AZKEN LETRA			
					AZTERKETA MOTA JADANIK		
BAI ZERA!	TULIOA TRAGEDIARI DAGOKIONA					LISTU BOROBIL, OBO	
		IDAZKI BATEN MAMIA				BELDUR BIZIA UTIKAN!	
FRANTSESEZ, KALEA DAGO							PORTUAK
	500 ERROMATAR ZENBAKIZ GABEZIAK					TAMAINA HANDIKO HEGAZTIAK JOKA, JOTZEN	
GUHAUR JOSU MARTINEZEN FILMA (ARGAZKIAN)		ERITREAKO DOMEINUA HERRI NAFARRA	FALTSU SALDU ADITZAREN INFINITIBOA	LETRA PUNTUDUNA ...DE JANEIRO, BRASILGO HIRIA	PLURALAREN MARKA	ANPERIOA SUARI DARIONA	
					UKIMEN ARTSENIKOA		
HEGAZTI MOTA SOKA BATEKIN EGITEN DEN JOLASA		PASTORALETAKO ANTZEZLE LEHEN BOKALA					
					LAMAK		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

9	4			5	7	1		6
1	7	3	2			8	5	
8	6	5			1	2	7	9
7		9	4	2		5		1
2		8	7		5	4		
			1			9	2	7
3	8			1	4		9	2
		6		3		7		
					2			

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Moztu.
2. Zaintza, laguntza.
3. Erlijosaren jantzi.
4. Ke artean.
5. Diru zigorra.

EBAZPENAK

1. EBAKI
2. BABES
3. ABITU
4. KETAN
5. ISUNA

5	6	9	1	6	7	2	3	4	8
4	2	6	9	3	8	7	1	5	
3	8	7	5	1	4	6	9	2	
6	5	4	1	8	3	9	2	7	
2	1	8	7	9	5	4	6	3	
7	3	9	4	2	6	5	8	1	
8	6	5	3	4	1	2	7	9	
1	7	3	2	6	9	8	5	4	
9	4	2	8	5	7	1	3	6	

K	V	A	S	O	T	L	V	S	V	K	O	S
V	A	L	E	Z	A	R	I	V	O	I	V	K
I	K	O	R	S	O	R	O	K	A	R	S	O
V	K	J	B	E	U	G	E	U	G	E	U	G
K	A	R	A									
K	I	K	U	T	I	K	U	E	R	U	E	
V	V	Z	I	Z	I	V	X	T	V			
T	T	U	J	V								
T	E	S	T	Z	Z	V	K	A	I	K	V	A
N	I	I	P	L	I	V	A	T	R	V	A	M
U	L	I	L	G	V	A	I	G	O	G	O	L
P	F	U	V	Z	T	K						

Marina Landa

ARIARI AIRE



MUSIKA BIDELAGUN

"Beti maitatu izan dut musika. Ingu-ruan ez dut sortzailerik, baina abeslaria izan nahi nuela esaten nuen txikitan. Idaztea ere betidanik izan dut gustuko. Hasieran, ipuinak idazten nituen, ondoren olerkiak, iritzi artikuluak... eta 13 urterekin nire lehen kanta idatzi nuen, ingelesez. Bi urte geroago instrumentu bat behar nuela jabetu nintzen eta gu-rasoei gitarra oparitzeko eskatu nien. Geroztik gora-beherak izan ditut, baina, musikak beti lagundu izan nau bizitzan: hizkuntzak ikasten lagundu dit eta nire aldartea erregulatzeko balio izan dit".

"Arnasa hartu eta abestiak aireratzeko beharra nuen"

Hainbat urtez bakarka konposatzen eta abestiak sareetan partekatzen aritu ondotik, Aria taldearekin *Urdin* diskoa kaleratu berri du Marina Landak (Donostia, 1993). Musikan jarduteko aukera abandonatua zuela, Euskal Herriko pop musikari buruzko doktoretza-tesia abiatu, eta sormen prozesua eraldatu ondotik, jaio zen Aria.

SAIOA BALEZTENA **ANA BANEGAS**

Idaztea eta publikoan jotzea biluztearen modukoa omen da zuretzat. Abestiak bizipen pertsonaletik sortzen dituzu?

Ia guztiak, bai. Batzuk modu esplizituagoan eta beste batzuk implizituan, metaforen edo hitz jokoen bidez... baina gehienak nire esperientzietan oinarritzen dira. Niri gertatzen zaizkidan gauzak ez direnean, nire ideologia edo pentsamendua abiapuntu hartzen dut.

Non erranen zenuke aurkitzen duzula inspirazioa?

Edozein une eta lekutan aurki dezaket, egia esanda. Idatzi dudan azken kanta dutzatzen ari nintzela etorri zitzaidan eta korrika eta presaka atera behar izan nuen mugikorrean grabatzeko. Gauean ere, behin baino gehiagotan esnatu behar izan dut grabatu edo estrofaen bat idazteko.

Aria da zuen izena; *aire* erran nahi du italieraz. Horren beharra zenuela diozu...

Espazioa behar nuen; arnasa hartu, nire buruari jartzen nion presioa eta urduritasuna gainetik kendu. Ai-

rea behar nuen nik. Eta aldi berean, abestiak aireratzeko beharra sentitzen nuen. Hainbeste urte konposatzen igaro ondoren, jendeak beti galdetzen zidan ea non aurki zitzakeen nire kanta, eta ez nekien zer erantzun. Orain plataforma guztietan entzungai daude, azkenean!

Zer moduzko harrera izan duzue orain arte?

Harrera ona izan du, Durangoko Azokan izan ginen eta esperientzia polita izan zen. Jendeak abestiak oso gustuko izan dituela esan digu eta horrek ilusio handia egiten digu, nola ez! Gainera, bereziki gustuko dut entzule bakoitzaren kanta gogokoena ezberdina izatea, kanta ezberdinak direlako eta bakoitzaren berezitasunak mahaigaineratzeko gai izan garela iruditzen zaidalako.

Taldea donostiarra den arren, italierak arrasto garrantzitsua du hitzetan. Zer dela eta?

Niretzat musika hizkuntzak ikasteko tresna izan da, hala gertatu zitzaidan ingelesarekin, frantsesarekin, katalanarekin eta azken urteotan italie-



"Taldean jotzen dudanetik askoz zoriontsuagoa naiz. Ion Larrañagak, Iñaki Olaskoagak, Iñaki Ortegok eta laurok osatzen dugu taldea eta asko daukat haiei eskertzeko".

rarekin. Sizilian hilabete batzuk igaro behar izan nituen doktoretza-tesiaren nazioarteko egonaldia zela-eta. Kontua da han artatu behar ninduen ikertzailea ni iritsi baino aste batzuk lehenago zenu zela... eta hara iritsi nintzenezan bi aukera nituen: triste bizi edo bakardadea-ri buelta eman. Bigarren bidea hautatu nuen eta italiara ikasteari ekin nion, ero moduan. Musika entzuteaz gain, idazten ere hasi nintzen eta asko lagundu zidan.

Diskoa bera Sizilian grabatu zenuten. Nolako izan zen prozesua?

Bakardadean, zorionez, hainbat lagun egin nituen Palermon. Horien artean Domenico Gargano konpositore eta ekoizlea dago. Berak kanta batzuk grabatzeko aukera eskaini zidan eta aukerari heldu behar niola erabaki nuen. Hasieran, diskoa bakarlarri gisa kaleratzea zen ideia eta Palermon idatzitako kanteak osatu behar zuten, baina Iñaki Ortegorekin jotzen hasia nintzenez, taldea osatzea erabaki genuen. Argi dut ez dela disko edo talde baten prozesu naturala, baina hala suertatu zen: ni Palermora ahal dudan guztietan itzultzen naiz eta bidaiaria horietan grabatu genituen kanta.

Guztira, zazpi kanta osatzen dute bilduma. Tartean, barne gatazkak, maitasun istorioak eta bizitza filosofia dituzue mintzagai. Nolako izan da abestien sorkuntza prozesua?

Normalean letrak eta melodia aldi berean etortzen zaizkit, naturalki. Diskoko lau abesti Palermon sortuak dira, beste bi Euskal Herrian eta bat Mediterraneo itsasoaren gainetik hegazkinez pasatzen ari nintzela. Ondoko eserlekuko pertsonak flipatu zuen, hegaldi betean baxu abesten, idazten eta mugikorrean grabatzen aritu nintzelako. Letrek garrantzi handia dute, eta kanta bakoitzari bere espazioa ematen diot, zer kontatzen didan galdetzen diot. Batzuetan, hasieratik dakit zertaz ari den abestia, beste batzuetan estrofa batzuk behar ditut nik kontzienteki erabakitzeko zer den bertan kontatu nahi dudana. Une onetan, nahiz ilunagoetan sortutako kanta dira.

Anime perdute abestia kaleratu zenuten aurrerapen gisa. Mediterraneo du hizpide.

Palermon bizi nintzenezan idatzi nuen. Sizilia Mediterraneo itsasoko uharte

handiena da, erdian dago, eta immigrante eta errefuxiatu asko eta asko iristen dira hara. Halako batean, italiara ikasten ari nintzela, *amare* (maitatu) eta *a mare* (itsasora) hitzekin jolas egiten saiatzen ari nintzenezan, Aita Marik han misio asko egiten zituela irakurri nuen. Argi sentitu nuen abestiak gai hori jorratu behar zuela, eta bere bidea egin zuen. Horregatik, abestia errefuxiatuei laguntza ukatzen dien pertsona baten ikuspuntutik kontatua da, are gordinagoa, nire ustez.

Oraindik entzun ez duenarentzat, zer azpimarratuko zenue *Urdin* diskoaz?

Zazpi kanta goxo eta atsegin daude. Batzuek denok bizi ditugun egoera edo sentimenduak islatzen dituzte. Beste batzuk misteriotsuagoak dira eta ez dute argi adierazten zertaz ari diren, entzulearen irudimena piztu aldera. *Anime perdute*-k errefuxiatuen krisia du mintzagai, eta azkenik, *Vals hau zuretzako* maitasun sano baten bilaketa da, maitasun harreman batean oinarrituta. Kanta mimo handiz aukeratu genituen eta pozik gaude emaitzarekin. ●

Jorge Gimenez gogoan

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Brastakoan hedatutako laino itxiari ohi zaion izu-zirrarak hotzikaratu ninduen. Jorge Gimenez Bech hil da. Bidasoako Errepublikan triste gaude, galeraren tamaina neurtu ezinda. 30 urtez Alberdania argitaletxea gidatu zuen; Euskal Editoreen Elkartearen beste hamalau urtez; Irungo Udaleko Euskara Zerbitzuko zuzendaria beste bederatziz; Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikako Ikerketa eta Koordinazio zuzendaria ere izan zen; eta itzultzailea; eta haren ibilbide profesionalari buruzko beste datu asko ere aipa daitezke; baina horixe, datuak. Datuekin obsesionatuta bizi da mundu hau. Eta horrelako momentuetan jabetzen gara ez dutela gauza handirik esplikatzeko. Liburuetan hasten gara esaldi bila.

Sentimenduak adierazten dituzten hitzak lausoak dira oso. Hobe da horrelakoen erabilera saihestea eta gauzak, gizakiak eta norbera deskribatzera mugatzea; hau da, gertaeren azalpen hutsera. Nobedade bakoitza liburu-dendara iritsi aurretik: originalak inguratu, hautatu, testuak editatu, kontratuak presatatu, maketatu, diseinatu, egilearen argazkia enkargatu, biografia laburra moldatu, kontrazaleko testua txukundu, inprimategikoak bideratu, galeradak errebisatu, banaketaz arduratu, prentsa-oharra errepasatu, aurkezteko lekua lotu, hedabideetako eta sareetako zabalkundea bermatu. Publikoak liburuaz eta idazleaz hitz egingo du. Eta hala beharko du, baina bidean egiten diren aitortza gutxiko lanengatik ez balitz, ez legoke zertaz hitz egin. Irungo Istillaga plazako makina-gelan beti Jorge Gimenez. Gure panorama kulturean zenbat egon dira prest argitaletxe baten ardura bizkar gainean horrela hartzeko?

Bakeak egiteko proposamen bakoitzari beste bat eranstea gomendatzen zuen K. jaunak, lehen proposamena ain-



GOTZON ARANBURU / FOKU

tzat hartzen ez den kasurako. Ez da lana bakarrik ordea. Ezta ardura bakarrik ere. Editore baten tamaina josten dituen konplizitateek ere erakusten dute. Eta Gimenezen kasuan, zabaleran neur daitezke. Alberdaniaren katalogoa erreparatzeko, zer gauza argitaratu zituen, zer garaitan, argi ikusten da gai izan zela lagun/etsai dikotomia antzuzko gaindituz zubiak eraikitzeko une gogorrenetan ere, bakoitza berean gotortzeko joerak kasik instintiboa zirudienean.

Banekien ordurako ohartuta egon zela bere hutsegite zoritxarrekoaz. Ni ikusi orduko ulertu zuen zertan ari nintzen: nire ondoan paper hautsien pila bat zegoen. 1982ko urriaren 9an ETAK Jose Jimenez Mayoral guardia zibileko kapitain erretiratua hil zuen. “Nire aita Behobiako espaloi batean hilda zetzan”, idatzi zuen Gimenezek, egun hura gogoratuz. “Amorruz eta minez suntsituta eraman ninduten nire amaren ondora. Amorrua eta mina nire amaren begie-

tan ere. Eta haren ezpainetan galdera bat, geroztik nire barruan burrunbaka: ‘Nor babesten duzue?’ (...) Ez dakizue zenbateraino ulertu nuen nire amaren salaketa, ni ere barne hartzen ninduen. Nire egiteraino ulertu nuen. Hiltzaile sentitzeraino. Nire aitaren hiltzaile”. Duela bi urte argitaratu zuen artikulua hark zer pentsatu ematen du oraindik ere. Hitz haien bitartez erakutsi zuen autoexigentzia etikoa ere gera dakigula, besteen erruak bakarrik seinalatzen tematzen diren memoria-ariketetatik zertxobait harago iritsi ahal izateko.

Letra etzanez idatzitako esaldiak liburu hauetatik hartuak dira: Anjel Lertxundiren *Otto Pette* (Alberdania, 1994); Agota Kristofen *Koaderno handia* (Alberdania, 1997); Bertolt Brechten *Keuner jaunaren kondairak* (Alberdania, 1999); eta Danilo Kišen *Hildakoen entziklopedia* (Alberdania-Elkar, 2005). ●

egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak,
Eli Pagolak gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak,
Mattin Jauregik jasoak landatik.

Asteazkenero argia.eus-en eta
plataforma guztietan

 ARGIA.eus/podcast

Urtarrilak 10

Haragi sintetikoa hemen da

Aitor Aranburu (Behieko)

Urtarrilak 17

Bere gaztainondoen itzalpetik

Akaitz Sarasola

Urtarrilak 24

**Klima aldaketa lehen lerrotik:
nola bizi dute laborariek?**

Lorea Lizarreta (Hazialdeko)

Urtarrilak 31

**Lurraren aldeko borrokak,
errepresioa eta garaipenak**

Hartzea Lopez Adan eta
Joana Detchart (Ostia)



Jarioka

Asmatu hitz ezkutua... Kontuz hitz debekatuekin!



Zure taldeak hitz hau asmatu behar du...

Abantaila	Garantia	Suziria	Taberna
<ul style="list-style-type: none"> Onura Hobaria Probetxua Lehenengoa Etekina Aurrena 	<ul style="list-style-type: none"> Bermea Ziurtatu Abala Etxea Erosketa Hipoteka 	<ul style="list-style-type: none"> Jaia Espazioa Kea Lehertu Piroteknia Festa 	<ul style="list-style-type: none"> Jatetxea Edaria Pintxoa Topalekua Ostatua Benta

... baina ezin dituzu hitz hauek erabili



Eta kontuz, denbora mugatua duzu!

Trebezia komunikatiboa, azkartasuna eta ezagutza bultzatzen dituen mahai-jokoa.

+4 lagun

1.200 hitz baino gehiago asmatzeko

323 karta (18 komodin)



Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45